

Nora joan ote dira adberbio guztiak?

GRADU AMAIERAKO LANA

EGILEA: Fernández Altonaga, Cecilia

GRADUA: Euskal Ikasketetako Gradua

SAILA: Hizkuntzalaritza eta Euskal Ikasketak Saila

ZUZENDARIA: Fernández Fernández, Beatriz

2020-2021 ikasturtea – Ekaineko deialdia

LABURPENA

Lan honetan, adberbio kategoriari buruzko gogoeta kritiko bat egin nahi izan dut. Kategoria hau proposatzea zilegi ez dela aldarrikatu dut, eta adberbiotzat hartu diren zenbait hitz motarentzat analisi alternatiboak proposatu ditut, gehienak morfologiaren ikuspegi konstruktibista (Ramchand 2008) baten barruan.

Horretarako, adberbioei buruzko eztabaidan dauden oinarrizko zenbait arazo labur aurkeztu ondoren, ingelesaren (Huddleston & Pullum 2002), gaztelaniaren (Bosque & Demonte 1999, *Nueva Gramática de la Lengua Española* 2009) eta euskararen (Euskaltzaindia 1991; *Sareko Euskal Gramatika* 2011–2019) gramatikak aztertu ditut, eta bertan, adberbio labelpean zein hitz sailkatu den aztertu, testutik testura erkatu eta kategoriaren zein definizio eman den argitzen saiatu naiz. Honi dagokionez, definizio guztiek zailtasunak eta inkoherentziak dituztela erakutsi dut eta hori neurri handi batean zor zaiola berez multzo bakarra osatzen ez duten hitzak multzo beraren barruan definitu nahi izateari.

Honi aurre egiteko, euskarazko gramatiketan adberbiotzat sailkatu diren hitzentzat bestelako analisi bat proposatzen saiatu naiz. Egiteko honetan, lau hitz-motari begiratu diet: *-ki* atzizkiaren bidez sortutakoak (*hertsiki*, *zehazki*), adjektibo huts itxurakoak (*argi*, *argi hitz egin* bezalakoetan), Posposizio Sintagma (PS) itxurakoak (*gainera*, *ustez*) eta hitz bakun itxurakoak (*gaur*, *aspaldi*).

-Ki atzizkiaren bidezkoiei dagokienez, askotan eratorpen bidez sortutako adberbiotzat azaldu diren arren, lan honetan Bakerren (2003) eta Fábregasen (2007) ildotik, prozesu sintaktikoen bidez sortutako hitzak direla proposatu dut. Egile hauen analisietan, *-ly/-mente/-ki* elementua izenaren antzeko osagaia da, baina erreferentzialtasuna falta duena. Adjektiboa, beraz, elementu hau modifikatzen dago, harekin komunztatzen duen heinean, baina predikazioa perpauseko beste elementu batez egiten du. Fábregasek (2007) *-mente* atzizkiarentzat proposatu zuen bezala, neuk ere *-ki* atzizkiarentzat proposatu dut Numero tasuna erkatu dezakeen tasun-matrizea dela. Hartara, harekin batera doan adjektiboak, Numero tasuna *-ki*-rekin asetzen du, baina Atribuzio tasuna erkatu gabe izango du eta hura erkatzeko, aditzaren edo perpausaren eremuaren barneko elementuak (ebentuak, hizketa moduak, besteak beste) modifikatzera joko du. Ikusten denez, Teoria Minimalista onetsi dut tasun erkaketarako.

Adjektibo huts itxurako modifikatzaileei dagokienez, Fábregas & Alexeyenko

(2016) eta Agirre (2017) hartu ditut oinarri. Fábregas & Alexeyenkok (2016) gaztelaniarako egin bezala, neuk ere euskaraz, bi modifikatzaile mota bereizi beharko liritekeela proposatu dut: bigarren mailako predikatu modura jokatzen duten adjektiboak eta adjektibo aldaezin modura jokatzen dutenak. Azken hauek *-ki* bidez sortutako hitzen egitura bera dute, eta *-ki* morfemaren ordez, zero-morfema bat dutela proposatu dut nik. Horregatik, *-ki* hitzak eta zero-morfemadunak alternantzia askean ager daitezke. Bigarren mailako predikatu gisa jokatzen duten adjektiboek, aldiz, banaketa osagarria erakusten dute *-ki* bidez sortutako hitzekiko.

Azkenik, PS itxurako hitzentzat zein *gaur* bezalakoentzat, PStzat hartu beharko genituzkeela proposatu dut. Huddlston & Pullumek (2002) erakutsi zuten arren honelakoak, ingelesez, Determinatzaile Sintagmak izan daitezkeela, euskaraz PStzat hartu behar direlakoan nago. Izan ere, euskaraz PSein alternantzia agertzen baitira beti, eta ez dute hauengandik bereizten dituen inolako ezaugarri edo jokabide berezirik.

AURKIBIDEA

1. Sarrera.....	5
2. Eztabaidaren oinarriak.....	6
2.1. Zer modifikatzen dute adberbioek?.....	6
2.2. Adberbioen morfologia.....	7
2.3. Predikatuen eta perpausen gaineko adberbioak.....	8
3. Adberbio kategoria inguruko hizkuntzetako gramatikan.....	9
3.1. Adberbioa ingelesaren eta gaztelaniaren gramatikan.....	10
3.2. Adberbioa euskararen gramatikan.....	13
4. Adberbioa kategoria ez bada, zer da?.....	16
4.1. Adberbioak multzokatzen.....	16
4.2. Eratorritako adberbioak, eratorriak ote?.....	18
4.2.1. Bakerren (2003) proposamena.....	18
4.2.2. Fábregasen (2007) proposamena.....	22
4.2.3. -Ki adberbioen analisisa euskaraz.....	25
4.3. Adjektibo huts itxurakoak.....	29
4.4. PS itxurakoak.....	33
4.5. Hitz bakunak direnak.....	33
5. Ondorioak: ez dago adberbiorik.....	36
Aipamenak.....	38

1. Sarrera

Gramatika teoriaren tradizio batzuetan aspalditik eztabaidatu izan da gramatika kategoriak, eta, bereziki, oinarritzko kategoria lexikoak zein diren eta zer irizpideren arabera definitu behar diren. Eztabaida inondik inora ere amaitu ez den arren, zenbait kategoriak onarpen zabala dutela esan daiteke. Izan ere, *aditza* edo *izena* bezalako kategoriak maiz erabiltzen dira, aparteko justifikaziorik gabe, eta baita, hein batean, *adjektibo* kategoria bera ere. Handik aurrerakoak, ordea, arazo gehiago ekarri izan dituzte. Hauen artean dago lan honetan aztertuko dudana ere, hots, *adberbioa*.

Aspalditik adierazi izan da adberbioek zein arreta gutxi jaso duten gramatikari buruzko edozein eztabaidatan eta, euskal gramatikari dagokionez ere, ezin dugu besterik esan. Adibidez, adberbioari *A Grammar of Basque* (Hualde & Ortiz de Urbina, 2003) lanean eskaintzen zaion lekua begiratu gero, ikusten da 5 orrialde baino ez dituela hartzen. Alabaina, *adberbio* kategoria tradiziozko gramatikatik datorkigu, eta haren existentzia luzaroan onetsi izan da, bereziki eztabaidatu gabe bada ere. Tradizio honi jarraiki, hizkuntza bakoitzeko gramatika deskribatzaileetan, adberbioen zenbait adibide eman ohi dira, baina, lan honetan erakutsiko dudanez, adibideak gorabehera, kategoria hau ez da behar bezala definitu. Horren ondorioz, dena delako hitza adberbiotzat hartzeko irizpideak aldatu egiten dira hizkuntzatik hizkuntzara.

Bestalde, lan honetan, adberbioa kategoria gisa bereizteko beharrik ez dagoela aldarrikatuko dut eta, bere ordez, nahikoa dugula adjektiboez edo bestelakoez hitz egitearekin. Horretarako, hasteko, adberbioa kategoria gisa definitzeko sortzen diren arazoen berri laburra emango dut (§2); ondoren ingelesaren, gaztelaniaren eta euskararen gramatiketan adberbioa nola definitu izan den aztertuko dut (§3); horren ondotik (§4), adberbiotzat hartu izan diren elementuak beste kategoria batzuen barruan sailkatzeko ahalegina egingo dut. Lehenik (§4.2) *-ki* bidez sortutako hitzak aztertuko ditut, Fábregasek (2007) gaztelaniarako eginiko proposamen baten ildotik. Ondoren, adjektibo huts itxurako hitzei helduko diet, Fábregas eta Alexeyenkoren (2016) eta Agirrerren (2017) lanean oinarrituz (§4.3). Azkenik, adberbiotzat hartzen diren PS¹

¹ Lan honetan erabili ditudan laburdurak hauek dira: P(S): Pre/Posposizio (Sintagma), A(S): Aditz (Sintagma), Perp(S): Perpaus (Sintagma), I(S): Izen (Sintagma), DS: Determinatzaile Sintagma, Adj(S): Adjektibo (Sintagma), AdjA: Adjektibo Aldagaitz, Adb: Adberbio, Pred(S): Predikazio Sintagma, GradS: Maila Sintagma, KonplS: Konplementatzaile Sintagma, Num: Numero tasuna, Gen: Genero tasuna, Ref: Erreferentzialtasun tasuna, Atr: Atribuzio tasuna, √: erroa, ESTAT: estatibo, PROG: Progresibo, N: Neutro, M: Maskulino, sg: singular, SBJ: subjektu, OBJ: objektu, EGLU I: *Euskal Gramatika Lehen Urratsak I* (1991), RAE: Real Academia Española, NGLE: *Nueva Gramática de la Lengua Española* (2009), OEH: *Orotariko Euskal Hiztegia* (1987-2007), EHHE: *Euskararen Hiztegi Historiko Etimologikoa* (2019).

itxurakoak (§4.4) eta hitz bakunak diren beste batzuk (§4.5) aztertuko ditut, biak ala biak PS gisa hartu daitezkeela argudiatzeko. Bukaeran, azterketa honetatik ateratako ondorioak aurkeztuko ditut (§5).

2. Eztabaidaren oinarriak

Hasteko esan beharra dago kategoriak ezaugarritzeko erabiltzen diren hiru alderdietan, hots, morfologian, jokabide sintaktikoan eta semantikan, ez dela kategoria honentzat ezaugarri bateraturik aurkitu. Hiru alderdi horietako bakoitzean adberbioek agertzen dituzten arazoak azalduko ditut atal honetan, lanean zehar jorratuko dudana eztabaidarako oinarriak ezartzen lagun dezaketelakoan.

2.1. Zer modifikatzen dute adberbioek?

Kategoriak deskribatzerakoan, oinarritzko egitekoa izaten da dena delako kategoriak beste kategoriekin izan ohi dituen harremanak zehaztea. Geroago azalduko dudanez (§3), gramatika deskribatzaile askotan adierazten da adberbioek *modifikazio* harremanak ezartzen dituztela. Hau horrela dela onartuta, argitu beharko litzateke adberbioak zein kategoria modifikatzen duen eta modifikazioa zertan datzan. Horretarako, har ditzagun ondoko perpausak:

- (1) a. Gure ordezkariak *ederto* hitz egin du.
- b. *Ederto*, gure ordezkariak hitz egin du.
- c. *Zehazki* gure ordezkariak hitz egin du.

(1a) perpausari dagokionez, esan ohi da adberbioak Aditz Sintagma (AS) modifikatzen duela. Izan ere, hitz egitearen ekintzari buruzko xehetasunak, zehazki *moduari* dagozkionak (nola hitz egin den), gaineratzen ditu adberbioak. Bestalde, (1b) perpausean, adberbioak ez du ekintzari buruzko informaziorik ematen. Aitzitik, hitzunik gertakari osoaz, alegia, proposizioaz duen iritzia edo jarrera adierazten du. Azkenik, (1c) perpausean, adberbioak ez du ekintzari buruzko xehetasunik ematen, ez eta hari buruzko iruzkinik gaineratzen. Horren ordez, subjektu funtzioa duen Determinatzaile Sintagma (DS), *gure ordezkariak*, modifikatzen duela dirudi.

Beraz, zer kategoria modifikatzen dute adberbioek? Gramatikan, oro har, lehenengo aipatzen direnak ASak eta perpausak dira, (1a) eta (1b), hurrenez hurren. Baina ez dira ASak edo perpausak adberbioek ustez modifikatzen dituzten kategoria

bakarrak. Horien ondotik beste kategoria batzuk gehitu ohi dira zerrendara, hala nola, adjektiboak (*tremendamente grande, terribly sad, aski ederra*), beste adberbio batzuk (*increíblemente bien, surprisingly well, guztiz ongi*), eta baita izenak/DSak ere, (1c) adibidean erakutsi dudan bezala. Hortaz, bistan da ez direla gehiegi mugatu adberbioaren modifikazio aukerak. Eta honen aurrean, ondoko galdera dator segidan: posible al da adberbioak “ia-edozer” modifikatzeko gai izatea? Zerk ahalbidetzen du askotariko modifikazio hori?

Argi dago galdera honen erantzuna aldeztatik adberbiotzat hartu denaren arabera izango dela. Hizkuntzatik hizkuntzara, elementu desberdinak hartzen dira adberbiotzat (§3), eta horrek, inplizituki edo esplizituki modifikazio harreman desberdinak proposatzera eramaten ditu ikertzaileak. Alabaina, kontuan hartu behar da, delako kategoria jokabide sintaktiko batekin lotu nahi bada, oztopo nabarmena dela modifika ditzakeen elementuen multzoa ezin zehaztea. Alderdi horretatik, hemen erakutsi nahi dudana bezala, ez da egokia adberbio kategoria proposatzea.

2.2. Adberbioen morfologia

Har bitez, orain, ondoko perpausak:

- (2) a. Gure ordezkariak *azkar/dotore* hitz egin du.
- b. Gure ordezkariak *zuhur(ki)* hitz egin du.
- c. Gure ordezkariak *ederki/*eder* hitz egin du
- d. Gure ordezkariak *zehaztasunez/luzaroan* hitz egin du.

Agerikoa denez, (2a) adibideko adberbioek adjektiboen forma bera dute. Izan ere, esan daiteke ere bai:

- (3) Gure ordezkaria *azkarra/dotorea* da.

(2b) adibidean ere, *zuhurki*-ren oinarrian adjektibo bat dago (*zuhur*), baina, euskal gramatikan, eratorpen atzizki batez, *-ki* adibidez, adberbio eratorritzat hartu izan da. Atzizki hau, dena dela, hautazkoa du, bietara esan baitaiteke, hots, *zuhur / zuhurki hitz egin du*. Aldiz, (2c) adibidean, ezinbestekoa da adjektiboak atzizkia hartzea. Azkenik, (2d) adibidean, adberbioen ordeztasunak, Posposizio Sintagmak (PS) aurkitzen ditugu, instrumentala edo inesiboa buru dutenak.

Adberbioak morfologikoki definitzerakoan, beraz, bi arazo, itxuraz kontrajarri, sortzen dira. Alde batetik, adberbiotzat hartu diren hainbat hitzek beste kategoria batzuetan sailka daitezkeen (eta sailkatu izan diren) beste zenbait hitzen itxura berbera dute; zehazki, adjektiboak edo adposizioak² ematen dute. Beste alde batetik, adberbiotzat jotzen diren hitz asko, itxuraz, eratorpen bidez sortutakoak dira (baina ikus §4.1 bestelako azterbide baterako). Beraz, pentsa liteke adberbioek eratorpen morfologia berezia dutela. Adberbioei buruzko edozein teoriak bateraezinak diruditen alderdi hauek biak azaldu beharko lituzke.

Geroago (§4) azalduko dudanez, bi ildo urratu dira arazo hauei guztiei aurre egiteko. Zenbait egilek (Jackendoff 1972) adberbio batzuek beste kategoria batzuetako partaideekin duten antza homofoniaren edo lexikalizazioaren ondorio dela suposatu dute, argudiatuz forma berak bi sarrera lexiko izan ditzakeela eta bietako bat adberbioa dela. Honela, adberbioa kategoria beregaintzat hartzen da. Beste batzuek (Baker 2003; Fábregas 2007; Fábregas & Alexeyenko 2016), aldiz, tradizioz adberbio kategorian sartu izan diren elementuak beste kategoria batzuetan sailkatzeko ahalegina egin dute. Euren lanetatik ondorioztatu daiteke *adberbio* deritzagun hori ez dela izatez aparteko kategoria bat, ez bada beste kategoria batzuetako hitzek zenbait testuinguru sintaktikotan duten jokabide berezitua. Nik azken bide hau urratuko dut lan honetan, euskararen datuak gaineratuz orain arte eman diren argudioetara.

2.3. Predikatuen eta perpausen gaineko adberbioak

Adberbioak semantikoki sailkatzerakoan, predikatua edo perpausa interpretatzeko gaineratzen duten informazioari jarri ohi zaio arreta. Ildo honetatik, Jackendoffek (1972) eta bere ondotik beste askok, adberbioak bi taldetan sailkatu dituzte: batetik *AS-adberbioak* eta bestetik, *Perp(aus)-adberbioak*.³ Sailkapen honek zabalkunde handia izan du eta oraindik ere adberbioei buruzko hainbat lanetan erabiltzen da (besteak beste, Alexiadou 1997 eta euskarari dagokionez, adibidez, Elordieta 2003).

Jackendoffen (1972) proposamenean, AS-adberbioak goiko (1a) adibideari dagozkionak dira, alegia, predikatuari eragiten diotenak, ekintzari buruzko informazioa gehituz. Perp-adberbioek, ordea, perpaus osoari, eta ez soilik ekintzari, eragiten diote.

² *Adposizio* deiturapean posposizioak eta preposizioak sartzen dira, eta baita beste hizkuntza batzuetan aurki ditzakegun *zirkunposizio* edo *anbiposizio* bezalakoak ere (ikus sarrera baterako, Etxeberria 2020).

³ Jatorrizkoan, *V(erb)P(hrased)-adverbs* eta *S(entence)-adverbs*.

Perp-adberbioen barruan, hainbat mota daude, hala nola, subjektuari zuzendutakoak (1b) edo hiztunari zuzendutakoak (*harrigarriro, ezustean*). Mota bion deiturek proposamen sintaktiko zehatz bati erantzuten diote. Izan ere, Jackendoffen lanean (1972) proposatzen da AS-adberbioak AS islapenaren mendekoak direla, eta Perp-adberbioak Perp islapenarenak.⁴ Jackendoffen (1972) lanean, kategoriek sintaktikoki zein semantikoki esanguratsuak izan behar zutela argudiatu zuen. Horregatik, adberbioen interpretazioan dauden kontrasteak kokagune sintaktikoarekin bat etorraraziz azaltzeko ahalegin berezia egiten du.

Hala ere, ematen du adberbio askok AS-adberbio zein Perp-adberbiotzat interpretatuak izateko aukera eskaintzen dutela, perpausean duten kokapenaren arabera, goiko (1a) eta (1b) adibideetan ikus daitekeen bezala. Baina zergatik adberbio batzuek bai eta besteek ez? Izan ere, ondoko adibideotan, ez da posible gauza bera egitea:

- (4) a. *Dirudienez*, Peru esnatu egin da.
b. *Peru *dirudienez* esnatu egin da.

(4b) adibidean, ezinezkoa dugu iritzi adberbio bat AS soilik modifikatzen jartzea, iritzia perpaus osoak adierazten duen proposizioari buruzkoa baita. Beste zerbait litzateke, adberbioa bi etenen artean jarriko bagenu: *Peru, dirudienez, esnatu egin da*. Horrela, ohar parentetiko gisa, (4a)-n bezain gramatikala litzateke.

3. Adberbio kategoria inguruko hizkuntzetako gramatiketan

Sarreran aurreratu dudan bezala (§1), adberbioak definitzerakoan sortzen diren zailtasunak orokorrak dira gramatika teorian eta, ondorioz, hizkuntza guztietako gramatika lanetan aurkitzen dugu zehazkabetasun honen isla. Ondoren, ingelesaren, gaztelaniaren eta euskararen gramatika deskribatzaileetan *adberbio* deiturapean zer elementu sartu diren zehazten saiatuko naiz, hiruren arteko ezaugarri komunak aurkitzeko asmoz.

3.1. Adberbioa ingelesaren eta gaztelaniaren gramatiketan

Ingelesari dagokionez, Huddleston eta Pullumek (2002: 562) hauxe diote adberbioari buruz euren gramatika ezagunean: “[Adberbioarena da] *a grammatically*

⁴ Kontuan har bedi, garaiko gramatika teorian perpaus osoari zegokion islapena Perp(aus) gisa adierazten zela, eta honen pean irudikatzen du Jackendoffek (1972) adberbioa.

distinct category of words whose members are characteristically used to modify verbs but not nouns". Definizioak zehatza ematen duen arren, jarraian datoz ñabardurak: "[...] *however, the words that can modify verbs can also modify adjectives and other adverbs [...]*" (ibid. 2002: 562). Beraz, definiziotik zehaztu daitekeen alderdi bakarra da adberbioek ez dutela izenik modifikatzen. Egileek eurek (ibid. 2002: 563) aitortzen dutenez "*In the practice of traditional grammar [...] the adverb is a miscellaneous or residual category*", hau da, adberbio kategoria beste aukera guztiak agortu direnean sailkatu gabe geratu diren hitzak biltzen dituen multzo heterogeneoa dela.

Zehazkabetasun honi aurre egiteko, euren gramatikan (Huddleston & Pullum 2002: 564–570) kategoriaren mugak murriztea proposatzen dute, eta *adberbiotzat* hartzea ondokoak soilik: i) *-ly* morfemaz eratorritako hitzak; ii) adjektiboen forma bera izan eta izenak modifikatzen ez dituzten hitzak, eta iii) morfologikoki bakunak (*as, ever, perhaps, rather*) edo konplexuak (*almost, already, somehow, furthermore, indeed*) izan daitezkeen beste zenbait elementu. Hala, kanpoan uzten dituzte denbora adberbiotzat hartu izan diren asko (*today, yesterday*), preposizio itxura duten *outside* bezalakoak (izatez historikoki PS direnak), eta determinatzailetzat jotzen dituzten *much* eta *little* bezalakoak. Alabaina, esan beharra dago azkenean ez dutela kategoriaren definizio intentsional argirik ematen, alegia, ez dute zehazten adberbioa izateko bete behar diren ezaugarriak zeintzuk diren. Horren ordez, hizkuntza honi soilik dagokion irizpide bat ezartzen dute: adberbiotzat jotzeko, hitz batek *-ly* motako beste adberbio baten bidez ordezkatu izateko gai izan behar du, eta hori da, hain zuzen, aurretik aipatu ditudan zenbait hitz (*today, outside* edo *much* bezalakoak) kanpoan uzteko arrazoi nagusia. Esan gabe doa definizio honek, ingelesari soilik dagokion irizpide bat ezartzeaz gain, *-ly* adberbioak definitu gabe uzten dituela.

Gaztelaniari dagokionez, bestalde, bi gramatika aztertu ditut: batetik, Bosque eta Demonteren (1999) gramatika deskribatzailea, eta bestetik, RAEren *Nueva Gramática de la Lengua Española (NGLE)* (2009). Ikusiko denez, bakoitzean irizpide desberdinekin heltzen zaio adberbioaren definizioari.

Bosque eta Demonteren (1999) gramatikan, adberbioak *partikulen meta-klasearen* barruan daude sailkatuta, preposizioekin eta juntagailuekin batera. Gramatika honetan meta-klasetzat hartzen den multzoaren ezaugarriak hiru dira: i) morfologikoki aldagaitzak izatea; ii) perpausaren barruko harremanak ezartzeaz arduratzea eta iii) tradizioz *funtzio zirkunstanziala* deitu zaiona betetzea, hots, hautazko modifikatzailea izatea (nahiz eta aditzaren osagarri ere izan daitezkeela onartzen den). Hemen ere,

adberbioa modifikatzen duenaren arabera definitzen da, printzipioz: “*El adverbio se suele definir como la clase de palabras que modifica al verbo (o a la oración), al adjetivo o a otros adverbios [...]*”. Alabaina, segidan adberbioak definitzeko irizpideak betetzen ez dituztenak ere badaudela ulertarazten da, ondorioz, emandako definizioa kolokan jarritz: “*si bien existen ciertos adverbios (los de la clase de incluso, casi, etc.) que pueden modificar prácticamente a cualquier tipo de categoría gramatical*” (Pavón Lucero 1999: 567).

Ondoren gaineratzen da adberbio gehienek hitz bakarrean jaso ohi dutela preposizio eta juntagailuen *harreman-balioa*, eta haiekin batera ageri den DS edo perpausaren balio lexikoa. Konparaziorako *entonces* eta *en ese momento* ematen dira (Pavón Lucero 1999: 568).

Hemen ere ez da inolaz ere argi gelditzen zer modifikatzen duen adberbioak, baina inplizituki besterik ez bada ere, uler daiteke adberbioek ez dutela, orokorrean, izena modifikatzen. Bestalde, iradokitzen da adberbioaren ezaugarri bereizgarria dela hitz bakarra osatzea. Gainerakoan, modifikazioa aipatzen bada ere, onartu egiten da adberbioak (*partikulak* oro har) osagarriak izan daitezkeela, hala nola, *el bolígrafo escribe bien* perpausuan (Pavón Lucero 1999: 567). Ingelese bezala, gaztelaniaz ere aipatzen da adberbioen eta preposizioen arteko harreman estua, askotan bata bestearekin ordezkatzera ahalbidetzen duena.

Gramatika honetan, hitzez hitz adierazten da adberbioek esanahi lexiko beregaina izan dezaketela zein ez. Esanahi lexikoa dutenen artean leudeke *-mente*-n oinarritutako guztiak (*difícilmente, claramente*); kalifikatiboak (*bien, mal*); lekuzkoak (*cerca, lejos*); *denborazko iragangaitzak* (gazt. *temporales intransitivos*) (*temprano, tarde*), eta modalak (*quizá, acaso*). Bestalde, esanahi lexiko osoa ez dutenak dira deiktikoak (*aquí, ahora, mañana, así, tanto*), kuantitatiboak (*poco, casi, siempre, todavía*), numeralak (*primero, medio*), identifikatiboak (*mismo, sí, también*) eta erlatiboak (*donde, cuando*) (Kovacci 1999: 707).

Beste alde batetik, RAEren gramatika berrian (NGLE 2009: 2285–2295), baztertu egiten da *partikula meta-klasea* eta kapitulu beregainetan jorratzen dira adberbio, preposizio eta juntagailuak. Adberbioen atalari eginiko sarreran (30.1 atala), zuzenean heltzen zaio kategoria hau definitzeko dakarren arazo teorikoari. Aitortu egiten da adberbioa hark modifika dezakeenari begira definituz gero, definizio zirkular batera baino ezin dela heldu, adberbioek modifika ditzaketen kategorien artean adberbioena bera ere badago-eta (lehenago Bosque eta Demonteren (1999) gramatikako

definizioan dagoeneko erakutsi dudan bezala). Hala ere, gramatika kategoria hau teoria zahar eta moderno gehienetan erabilienez, ontzat ematea erabakitzen da, definizio zehatzik gabe bada ere.

Hortaz, adberbioak honela definitzen dira: aditzak, adjektiboak, adberbioak eta horiek guztiek osatzen dituzten *multzo sintaktikoak* [sintagmak] modifikatzen dituzten hitzak, eta kasu batzuetan, eragina izan dezaketenak baita izen, izenordain eta preposizioei dagozkien multzoetan [IS/DS eta PSetan] eta perpausetan ere.

Aipatzekoa da definizio honetan ez dela ahaleginik egiten izena edo izenaren eremua definitzitik kanpo uzteko, Huddleston eta Pullumenean (2002) eta *Gramática Descriptiva* (1999) ez bezala. Hortaz, modifika ditzakeen kategorien aldetik, ezaugarri bereizgarririk gabe gelditzen da adberbioa.

Dena dela, adberbio mota bakoitzak jokabide gramatikal desberdina du. Ezaugarri hau kategoria desberdinak proposatu ahal izateko nahikoa erabakigarria dela iradokitzen da, eta mendebaldeko gramatika tradizioan ez bada halakorik egin, bi arrazoi hauengatik dela: lehena, morfologiak garrantzi handiagoa hartu duelako sailkapenerako, eta horrela, inflexiorik hartzen ez duten hitzak (*quizá, demasiado* zein *tremendamente*) batera multzokatu nahi izan direlako. Bigarrena, adberbiotzat jo ohi diren guztiek modifikazio harremanak ezartzen dituztelako. Hemen, dena dela, *modifikazio harremana* zertan datzan zehaztea zaila dela onartzen da, barnean hartzen baititu kuantifikazioa (*más*), kuantifikazioaren konparazioa (*tanto más*) edo zirkunstantzia (*temprano*) bezalako harremanak, euren artean arras desberdinak direnak.

Horrekin batera, hemen ere azpimarratu egiten da harreman estua dutela adberbioek eta *talde preposizionalek* [PSeq]. Bestalde, adjektiboekin duten paralelismoak ere agerian uzten dira, eta hori biak *elementu adjuntu* izatearen ondorio izan daitekeela esaten da, adjektiboak izenaren adjuntu eta adberbioak beste zenbait sintagmaren adjuntu direla suposatzen bada bederen.

Laburbilduz, atal honetan eztabaidatu ditudan lanei begira, argi dago, irizpideak guztiz desberdinak direnez, *adberbio* deiturapean jasotzen diren elementuak ez datozela bat hainbat alderditan. Aztertu ditudan gramatikek adberbioari ezaugarri komunak egotzen badizkiote ere (hitz bakarra osatzea, eskuarki), ez datoz bat ebazterakoan esanahi lexiko beregaina izatea erabakigarria ote den. Batzuetan hizkuntzaren bereizgarriak diren ezaugarri oso zehatzak erabiltzen dira adberbioak bereizteko, hala nola, *-ly* adberbioen bidez ordezkatuak izan ahal izatea ingelesez, edo inflexiorik batere ez hartzea gaztelaniaz. Huddleston eta Pullumen (2002) lanean eta NGLEn identifikatu

eta onartu egiten da kategoria hau lausoegi edo zirkularki definitzeko arriskua, baina ez zaio inongo konponbiderik ematen.

3.2. Adberbioa euskararen gramatiketan

Euskarara etorrira, ez dugu, oinarritzko definizioari dagokionez, aurreko gramatikekiko desberdintasun handirik aurkitzen. EGLUn (Euskaltzaindia 1991: 311), esate baterako, esaten da adberbioa: “*Aditzari laguntzen berezko zeregina duen hitz klasea*” dela. Horrekin batera, beste zenbait ezaugarri aipatzen dira: i) esaldiari albotik eransten zaiola, hots, “*marjinala*” dela; ii) kendu nahiz jarri, esaldiaren oinarritzko esanahia ez duela aldatzen, eta iii) behar adina erants daitezkeela (EGLU I, 1991: 309–312). Alabaina, hemen ere, hasieran argia lirudikeen definizioari ñabardurak gaineratu behar zaizkio: izenondoaren [adjektiboaren] modifikatzaile ere izan daitezke (adibidez, “*ondo ederki ibili ginen*” bezalako egitura batean), eta batzuetan “*aditzari berez dago(z)kion osagarria(k)*” dirudite, hau da, aditzaren nahitaezko osagarriak (EGLU I, 1991: 311). Beste hizkuntza batzuetarako aipatu dudana bezala, beraz, ez dira beti hain *marjinalak*.

Nolanahi ere, badago euskal gramatika tradizioan aipatu beharreko berezitasun bat. EGLUn aurkitzen dugun sailkapenean, *adberbio* labelaren azpian bi mota bereizten dira: batetik *aditzondoak* eta bestetik *adizlagunak*. Aditzondoak dira, oro har, beste hizkuntza batzuetan, eta baita gaia euskaraz aztertu duten beste lan batzuetan (Elordieta 2003; Elordieta 2011–2019) adberbio izenez ezagutzen diren hitzak. Adizlagunak, bere aldetik, *posposizio aske* edo *posposizio itsatsien* bidez adierazten direnak dira, alegia, beste hizkuntza batzuetan adposizio sintagmatzat hartu direnak, hain zuzen.

Multzokatze hau, agerikoa denez, gramatika berean adjektibo kategoriarekin egiten denaren paraleloa da. Horren arrazoia da EGLUn adberbioen eta adjektiboaren sistemen arteko parekotasun morfologikoa azpimarratu nahi dela (EGLU I, 1991: 309–310). Hala, adjektiboaren barruan bi multzo daude: alde batetik *izenondoak*, berez izan daitezkeenak izenaren laguntzaile, eta bestetik *izenlagunak*, izenari lagundu ahal izateko posposizioaren bat behar dutenak. Adibidez:

- (5) Etxeko txakur txikia.

EGLUren deiturei segika, goiko sintagman, *etxeko* izenlaguna litzateke, *-ko* posposizioa hartzen baitu, eta *txikia* aldiz, izenondoa. Halaber, EGLUk dio, Izen

Sintagma (IS) batzuk posposizio baten beharrea daudela *adberbio zeregina* betetzeko (adizlagunak) eta beste batzuek, berriz, elementu autonomo gisa bete dezaketela zeregin hori (aditzondoak).

- (6) a. Jokalariak *eskuaz* jo du pilota.
- b. Jokalariak *gogor/astiro* jo du pilota.

(6a) adibidean, *eskuaz* adizlaguntzat jotzen da EGLUko sailkapenean, eta (6b)ko *gogor* edo *astiro*, aldiz, aditzondotzat. Bi multzoak, hala ere, *adberbio* deitura orokorraren barruan sailkatzen dira lan honetako terminologian.

Berezitasun honen arrazoia da kategoria bereizteko irizpidetzat *hitz bakarra*⁵ osatzea hartu dela. Baina, ondo dakigun bezala, euskaraz ez dago argi hitz bakartzat zer hartu, irizpideen arabera, hitz bakarra izan daitezkeelako baita hainbat elementu posposiziodun ere, nahiz eta barne egitura konplexuagoa izan. Adibidez, euskaraz, ohikoena da hitz bakartzat hartzea *etxerantz* edo *garaiz*, barnean *etxe+-rantz* edo *garai+-z* osagaiak bereiz ditzakegun arren, gutxienez. Horregatik, gaur egun, beste zenbait lan eta gramatikatan (Zabala eta Odriozola 1994; Hualde eta Ortiz de Urbina 2003; Salaburu et al. 2011–2019) banaketa hau baztertu egiten da adjektibo zein adberbioentzat, euskaraz bakarrik zilegi diren kategoria idiosinkrasikoak saihesteko.

Dena dela, nire ustez, kasu honetan intuizio interesgarri bat gordetzen du sailkapen honek, hain zuzen, posposizio sintagmek eta adberbioek sail bakarra osa dezaketela, biek modu bertsuan jokatzen baitute. *Sareko Euskal Gramatikan* (SEG) (Salaburu et al. 2011–2019), intuizio hau hitzez hitz adierazten da: “*Postposizioek eta adberbioek sintagma mota bera osatzen dute, nahiz ez den erraza sintagma horri dagokion izena aurkitzea, ez eta barneko egitura zein den ongi zehaztea ere*”. Izan ere, bertan argudiatzen denez, posposizio askok eta adberbioek banaketa bera dute eta funtzio zirkunstantzial bera betetzen dute. Terminologia desberdinarekin bada ere, SEGen azalpenetik segitzen da elkarrekin tratatu beharko lirakeela EGLUk adizlagun eta aditzondo deitu dituenak, alegia, posposizio sintagmak eta adberbioak.

Beste alde batetik, adibide zehatzetara jotzen dugunean, ikus daiteke bi kategorien arteko muga ez dela beti argia. Izan ere, *bihar* eta *aski* adberbio gisa hartzen

⁵ *Hitz bakarrarekin* ez dut esan nahi *hitz bakuna*. Eratorpen bidez osatutakoak ere hitz bakartzat hartzen dira EGLUren (1991) sailkapenerako, eta beraz, izenondo/aditzondotzat, baina ez hala posposizio bidez osatutakoak.

dira hiztegieta (*Hiztegi Batua, Elhuyar*), baina baita *orduan* eta *nahiko* ere. Batzuen eta besteen arteko desberdintasun bakarra da, etimologikoki, azken bietan posposizio bat antzeman daitekeela: *ordu+-an*, *nahi+-ko*, baina hau oharkabean ere igaro daiteke, ez baitu ematen, aspalditik behintzat, bi elementuen esanahia konposizionalki ulertzen dugunik (hiztunak ez du, gaur egun behintzat, horren susmorik).

EGLUK (1991: 317–318) dagoeneko heldu zion gai honi adierazi zuenean hiru *adberbializazio maila* bereiz daitezkeela. Lehenik eta behin, adberbializazioa erabat burutu duten hitzena: dela historikoki kasu marka [posposizio] baten gainean eratu baina gaurko hiztunek sumatzen ez dutelako (*aurten*, *noiz*) edota atzizkia agerikoa izanik ere, esanahi berezia hartu dutelako (*gainera*, *berriz*). Bigarrenik, adberbializazio bidean daudenak, hots, *estereotipurik* erabiltzen direnak, hala nola *ostean*, *gustora* edo *gora*. Hirugarrenik, “*kasu-marka eta guztiko izenki garbi irauten dutenak*” (*lagunarekin*, *mendira*), hots, PS gisa interpretatzen ditugunak, beste adiera gehigarririk gabe. Askotan, beraz, ematen du bi kategorien arteko desberdintasuna ez dela hainbeste osaera morfologikoan oinarritzen, baizik eta haren interpretazio konposizional edo lexikalizatuagoan.

Beraz, ezin esan dezakegu euskaraz ere irizpide argiegirik dugunik adberbioak bereizteko. Aitzitik, badira proposamenak PSak adberbioekin batera sailkatzeko, dela EGLUren *adizlagun* kategoria bereziaren bitartez, edo, berrikiago SEGek proposatu bezala,⁶ biak multzo bakarrean elkartuz. Izan ere, EGLUn iradoki zen bezala, egun gramatikek bi kategoriak bereizteko darabiltzaten irizpideek, funtsean morfologikoak izan nahi duten arren (hitz bakarraren eta izen+posposizio taldearen aurkakotasuna), oso lotuta daude lexikalizazio-mailarekin, eta mailen arteko mugak nahiko lausoak dira gehienetan.

Atalari bukaera emateko esan dezadan atal honetan adberbioa arakatu dudala hiru hizkuntzetako gramatikak baliatuz: ingeles, gaztelania eta euskararenak. Erakutsi dudanez, hiruretako batean ere ez dago adberbioak definitzeko irizpide garbirik. Horrekin batera, nahiz eta hiru gramatiketan deitura bera (edo bertsua) erabili, hizkuntzatik hizkuntzara *adberbio* labelpean elementu desberdinak sartzen direla erakutsi dut, tradizio bakoitzean irizpide desberdinak hartu baitira kontuan. Ondorio hauek beheko taulan (1. taula) laburbildu ditut. Azkenik erakutsi dut euskararen zenbait

⁶ Esan beharra dago SEGek planteamendu hau teorikoki proposatzen duela, baina ez diola gero aplikatzen lanean zehar erabiltzen duen sailkapenari. Bertan diotenez, *aurkezpena argiago aurkeztu ahal izateko*, bereiz ematen dira adberbioak eta PSak.

gramatikatan iradoki izan dela tradizioz *adberbio* deitu direnen eta PSen artean ez dagoela muga argirik.

Zer modifikatu	Ingelesa	Gaztelania	Euskara
Aditzak	✓	✓	✓
Adjektiboak	✓	✓	✓
Adberbioak	✓	✓	✓
Izen/PSak	×	✓	×
Nola definitu			
Modifikatu egiten dute	✓	✓	✓
Hitz bakarra dira	✓	✓	??
Ezaugarri bereziak	<input type="checkbox"/> <i>-ly</i> atzizkia dute, edo <i>-ly</i> hitz batez ordezkatu daitezke	<input type="checkbox"/> Aldagaitzak dira	
Adibideak	<i>surprisingly, hard, fast, as, ever, perhaps, some already, indeed</i>	<i>claramente, bien, lejos, tarde, quizá, aquí, mañana, sí, donde</i> (erlatiboa)	<i>ondo, zehazki, gogor, bihar, orduan, gainera, nola, hemen (+ eskuaz, bizikletan adizlagunak hartuta)</i>

1. taula: adberbioen definizioa gramatiketan

4. Adberbioa kategoria ez bada, zer da?

4.1. Adberbioak multzokatzen

Aurreko atalean ikusi dugu euskaraz zein beste hizkuntza batzuetan, funtsezko oztopo bat dagoela adberbioak definitzerakoan: erraz nahas daitezkeela beste kategoria batzuekin, hala nola, adjektibo eta PSeekin. Atal honetan, arazo honen inplikazio teorikoei helduko diet, banan-banan aztertuz adberbiotzat hartu diren hitzak zein kategoriaren antzekoak diren eta nola aztertu diren antzekotasun horiek.

Horretarako, adberbiotzat hartu diren hitzak multzokatuko ditut bakoitzari eman dakioken analisi alternatiboaren arabera. Nire hipotesia zuzena bada, adberbiotzat hartu diren hitz hauek bakoitza beste kategoria batean sailkatu daiteke, ezaugarri morfologikoak partekatzen baititu kategoria horretako beste kideekin.

Multzo hauek osatzerakoan, beraz, irizpide morfologikoari baino ez diot erreparatu. Hortaz, kontuan hartu dut hitzaren barnean egitura konplexuagorik suma ote daitekeen edota beste kategorietan sailkatu izan diren elementuen itxura bera ote duten. Honen arabera, multzo hauek bereizi ditut: i) adjektiboa + *-ki/-to/-ro* egiturakoak; ii) adjektibo huts itxurakoak: *azkar, zehatz, garbi*; iii) PS itxurakoak: *orduan, itxuraz, gainera, aitzitik* eta *azkenik*, iv) hitz bakunak: *atzo, gaur, aspaldi*.

Sailkapen honetatik kanpo utzi ditut De Rijkek (2008: 241) *maila adberbioak* (ing. *degree adverbs*) deritzenak. Izan ere, De Rijkek berak ohartarazi zuenez, euskaraz, DS barruan erabiltzen diren kuantifikatzaile berak erabiltzen dira maila adberbiotzat. Beraz, besterik gabe, hauek kuantifikatzaileak direla onetsi dut. Jakina da kuantifikazioa izenaren eremutik kanpora eramateko proposamenak egin direla, semantikoki ere zantzuak baitaude banakoak ez direla kuantifika daitezkeen elementu bakarrak; kuantifikagarriak dira baita kasuak, gertaerak edo egoerak eta *mundu posibleak* (Partee, 1991). Proposamen honen gauzaren sintaktikoa xeheago aztertu beharko litzatekeen arren, lan honetan, albo batera utziko dut gai hau.

Hitz bakunen artean ere, ez ditut kontuan hartu tradizioz adberbiotzat hartuak izan diren *omen* gisako hitzak eta *bai* eta *ez* gisakoak. Izan ere, hauek guztiak gramatikako ikerketetan bereiz aztertu izan dira, askotan zenbait buru funtzionalen gauzaren gisa. Alderdi askotan, ez dute adberbio deitu diren bestelako hitzekin antz handirik: ezin dira pilatu eta ez dute denbora/lekuzko posposiziorik hartzen, ezta graduatzailearik edo maila-hitzik ere. Hauek beregainki ikertzea argigarriagoa delakoan, ez ditut hemen aipatuko.

Adberbio kategoriaren beharrik ez dugula proposatzeko oztopo nagusia, aurretik azaldu dudana bezala (§2.2), kategoria honek itxuraz eratorpen morfologia beregaina izatea da. Alabaina, *-ki* erako morfemak eratorpen atzizkiak ez direla erakutsiz gero, adberbio kategoria aldarrikatzeko ebidentzia bertan behera geratuko litzateke. Ondoko atalean (§4.2), horixe bera erakutsiko dut. Behin oztopo hori gaindituta, adberbiotzat hartu diren bestelako hitzak beste kategoria batzuetan sailka daitezkeela aldarrikatuko dut: adjektibo hutsaren itxura duten hitzak PStzat aztertzea proposatuko dut (§4.3) Fábregas & Alexeyenkoren (2016) lanean eta Agirrek (2017) euskararako egindako moldaketan oinarrituz eta hurrengo ataletan (§4.4, §4,5) adberbiotzat hartuak izan diren beste hitzak ere PStzat hartzea proposatuko ditut.

4.2. Eratorritako adberbioak, eratorritakoak ote?

-*Ki* morfema adberbioak sortzeko eratorpenezko atzizkia ez dela defendatzeko, beste hizkuntza batzuetan kideko elementutzat har daitezkeen morfemen analisisetara joko dut. Kideko elementu hauek dira, adibidez, ingelesezko *-ly* edo gaztelaniazko *-mente*. Morfema hauetaz dihardute, batetik, Bakerrek (2003) ingeleserako, eta bestetik, Fábregasek (2007) gaztelaniarako. Egile hauen analisisen azterketa kritikoa egingo dut, beraz, euskararako zenbateraino balia ote daitezkeen ikusteko.

4.2.1. Bakerren (2003) proposamena

Bakerren (2003) lanean, Emondsek (1985) aurretik iradoki zuen bezala, adberbioak adjektibo gisa sailkatzea proposatzen da. Bere proposamena oinarritzeko, Bakerrek (2003) adjektibo eta adberbioen arteko antzekotasun asko direla erakusten du. Hasteko, batzuek zein besteek kuantifikatzaile eta *maila-hitz* berak eta egitura konparatibo berak hartzen dituzte, (7a) adibidean ikus daitekeenez ingeleserako, eta (7b)n euskararako:

- (7) a. *very proud* (Adj) / *very slowly* (Adb)
b. *oso harro* (Adj) / *oso astiro* (Adb)

Bestalde, ingelesez, adjektiboek ezin dute osagarririk hartu izenaren modifikatzaile gisa ageri badira, (8a)ko adibidean ikusten den bezala. Orobat, adberbioek ere ez dute osagarririk hartzen AS modifikatzerakoan⁷ (8b):

- (8) a. **a proud of his daughter* man
b. **John, proudly of his daughter*, showed everyone her pictures

Horrekin batera, banaketa paraleloa da adberbioak modifikatutako aditzaren eta dagokion adjektiboak modifikatutako aditz nominalizatuaren artean:

- (9) a. *Italy brutally invaded* Albania
b. *Italy's brutal invasion* of Albania (Baker 2003: 231, 70. adib)

⁷ Dena dela, Alexiadouk (1997), besteren artean, erakutsi du kasu batzuetan posible dela: *independently from our efforts* (Alexiadou, 1997: 5).

Adibide honetan ikusten denez, ingelesez adberbioa aditzaren aurretik ageri da (9a), eta adjektiboa ere aditz-izenaren aurretik (9b).

Bakerrek (2003: 232) indoeuroparrak ez diren hizkuntzetako adibideak ere badakartza ideia honen alde. Izan ere, zenbait hizkuntzatan, hala nola, edoeraz,⁸ mapudunguneraz⁹ eta kilegeraz¹⁰, adjektibo eta adberbioak ez dira morfologikoki ezertan desberdintzen, hitz berak bi kategorien zereginetarako balio baitu. Bestalde, adjektiborik ez duten hizkuntza batzuek ez dute adverbiorik ezta, eta estrategia bera erabiltzen dute bataren zein besteren ordez. Mohawkerak,¹¹ esaterako, aditz estatiboak baliatzen ditu:

(10) Mohawkera: (Baker 2003: 232, 74. adibidea)

Yó - hsnor - e' ro -[a]teyahr-ú - tye' ne owirá'a.

NsgSBJ-izan.azkar-STAT MsgOBJ-hazi-ESTAT-PROG NE haurra

Haurra azkar hazten ari da (lit. 'Azkar da haurra hazten ari den (modu)a')

Alabaina, hizkuntza indoeuropar batzuetan, hala nola, hizkuntza erromantzeetan eta ingelesean, eta baita euskaraz ere, bada adberbioen izaera beregaina aldarrikatzeko argudiotzat hartu den datu bat: eratorpen bidez sortzeko gaitasuna. Adjektiboetatik adberbioak eratortzeko atzizki emankorrak omen daude bai ingelesez (-ly), bai hizkuntza erromantzeetan (-mente/-ment) eta baita euskaraz ere (-ki).¹² Atzizki hauek guztiek adjektiboak hartzen dituzte oinarrian eta aditza edo perpausa modifikatzeko balio duen elementu bat osatzen dute.

Bakerren (2003) proposamenean, honi azalpen koherente bat emateko -ly/-mente morfema izen modura interpretatzea proposatzen da. Bakerren (2003) lanean, bi ale lexiko sintaxian *batzerakoan* (ing. *merge*), biak modifikazio harreman batean daudela interpretatu ahal izateko baldintza bat bete behar da: ale lexiko bakoitzari semantikoki aldagai desberdina ezartzea, hots, bakoitza indize desberdin batekin lotzea.

⁸ Edoera (biniera izenez ere ezaguna) Niger-Congo familiako hizkuntza da eta Nigerian hitz egiten da (*Bini* in WALS Online 2013, Dryer, Matthew & Haspelmath (arg.)).

⁹ Mapudungunera araukaniar familiako hizkuntza da eta Txilen hitz egiten da (*Mapudungun* in WALS Online 2013).

¹⁰ Kilegera (edo legera) Niger-Congo familiako hizkuntza da eta Kongoko Errepublika Demokratikoan hitz egiten da (*Lega* in WALS Online 2013).

¹¹ Mohawkera Irokiar familiako hizkuntza da eta Ipar Amerikan hitz egiten da (*Mohawk* in WALS Online 2013).

¹² Honekin batera, euskaraz aipa daitezke hain emankorrak ez diren -ro, -to, -roki, -kiro (EGLU I: 315; De Rijk 2008: 234–236, SEG 2011–2019), baina hauek 4.1.3. atalean aztertuko dira xeheago.

Gauzak honela, izenak dira bestelako gehigarririk gabe modifika daitezkeen elementu bakarrak, bakoitzak aldagai desberdina jasotzen baitu berez. Predikatuak modifikatzeko, aldiz, identitatea duen elementu gehigarri bat gaineratu behar izaten da, eta Bakerren ustez, kasu honetan, *-ly/-mente* da elementu hori. Bestela esanda, Bakerren (2003) analisisian *-ly/-mente* izen bat da, elementu identitadeduna den heinean, eta oinarrian hartzen duen adjektiboa bere modifikatzailea litzateke. Honek azalduko lituzke goian, *-ly/-menteren* jokabideari dagokionez aipatu ditudan berezitasunak, hots, (i) kuantifikatzaile berak hartzea, (ii) osagarririk ezin hartzea eta (iii) hurrenkera bera izatea izenarekiko, izan ere, funtsean, hitz hauen oinarrian dagoen adjektiboak bere adjektibo izaera gordetzen du, *-ly/-mente* elementua modifikatzen badu ere.

Hala ere, proposamen honek zenbait arazo dakartza. Hasteko, xehetasun semantikoak ez dira hain argi azaltzen. Izan ere, Bakerren (2003) azalpenean, *Modu* theta-errola hautazkoa duten aditzek errol hau esleitu diezaioke *-ly* elementuari. Hala, interpretazio semantikoa hauxe litzateke: ‘X ekintza (=A) gertatu den modua, Y (=Adj) modua (=ly) da’. Ikusten denez, predikatuen modifikazioa izen baten (*-ly*) bitartekaritza gertatuko litzateke. Analisi honek, baina, semantikoki sinplifikazio nabarmena egiten du. Izan ere, ingelesari dagokionez, adierazi izan da (Jackendoff 1972; Huddleston & Pullum 2002; Delfitto 2005) ez dela erraza zehazten atzizkiak zein harreman semantiko ezartzen duen oinarriaren eta eratorriaren artean: maiz *-ly*-dun elementuak “modu Adj batean” (*softly*: ‘modu eme batean’) edo “maila Adj-ean” (*surprisingly*: ‘maila harrigarrian’) esan nahi badu ere, askotan harremanak ezin dira horren erraz aurreikusi (Huddleston & Pullum 2002: 565). Aukerak bereziki ugariak dira ingelesez, baina fenomeno orokorra da:

- (11) a. They finally left → #In a final manner
(Huddleston & Pullum 2002: 565, 8i.b)
- b. I really enjoyed it → #In a real manner, #to a real extent
(Huddleston & Pullum 2002: 565, 8iii.b)
- c. Happily, Frank is avoiding us → #In a happy manner (Delfitto 2005: 5)
- d. Botanically, tomato is a fruit → ??In a botanical manner (Delfitto 2005: 6)

Gainera, askotan inplikazio harreman ezegokiak sortuko lirateke Bakerrek (2003) proposatutako *modu* interpretazioa zurrin ezarriz gero. *Pellok sutzuki dantzatu du* esateak *Pellok dantzatu du* inplikitzen du, baina *Pellok ontzia partzialki hustu du*

esateak ez du inplikatzeko *Pellok ontzia hustu duenik* (Delfitto 2005: 6).

Beste alde batetik, proposamen hau onartuz gero, azaldu gabe geratzen da batzuetan zergatik ager daitezkeen adjektibo hutsak adberbioen ordean, hipotesi honek ez baitu aurreikusten kasu horiek interpretagarriak izango direnik. Datuek erakusten dute, ordea, zenbait kasutan eratorritako adberbioek zein adjektiboek banaketa bera dutela.

Azkenik, gaineratuko nuke euskarazko zenbait datu ez datozela bat ingelesezkoekin. Hurrenkerari dagokionez, euskaraz hurrenkera bera ez, ez bada aurkako hurrenkera ematen digute adjektiboek eta adberbioek (12). Izan ere, euskaraz, adjektiboak izenaren eskuinetara ematen ditugu ezinbestean.¹³

(12) a. Italiak *zitalki* inbaditu zuen Albania.

b. Italiaren (Albaniaren) inbasio *zitalki*.

Datu hauek arazotsuak dira, Bakerri (2003) jarraituz, pentsatu behar badugu Adj eta *-ly atribuziozko modifikazio*¹⁴ harremanean daudela, alegia, sintaxiari dagokion atalean elkartzen direla. Izan ere, euskaraz adjektiboek duten hurrenkera arrunta (I-Adj) ez litzateke bat etorriko *-ki*-dun egitura batean erakutsiko lukeenarekin (Adj-*ki*). Eta, printzipioz, ez dago horretarako begi-bistako arrazoirik.

Hortaz, esan daiteke Bakerren hipotesiaren aurka egiten duten zenbait alderdi daudela: alde batetik, analisi honek berarekin dakarren interpretazio semantikoa ez da beti zuzena, *X-ly* ez baita beti “X moduan” edo “X mailan” bezala ulertzen, eta gainera, inplikazio harreman ezegokiak sor daitezke batzuetan. Horrekin batera, euskarazko datuek erakusten dute *-ki*-dun elementuen eta adjektibo hutsen jokabidea ez dela guztiz paraleloa. Arazo hauei aurre egiten dien beste analisi baten bila, Fábregasen (2007) proposamena aztertuko dut segidan.

4.2.2. Fábregasen (2007) proposamena

Hizkuntza erromantzeetan ere, badaude zenbait ezaugarri pentsarazten dutenak *-mente* atzizkiak ez direla eratorpen atzizki arruntak. Adibidez, hizkuntza hauetan

¹³ Alde batera utzita: (i) harridura adieraztean: *gaixo bekataria!*; (ii)-*dun*-en gainean eraikitako adjektiboekin (*dirudun neska*), (iii) *-(t)ar* atzizkiaren gainean eraikitako adjektiboekin (*frantziar mutila*) (EGLU I: 159).

¹⁴ Honela deitzen die Bakerrek (2003) *etxe handia* bezalako egiturei, non adjektiboa ez den predikatzen aditz batetik, zuzenean izenetik baizik. Bere proposamenean, buru hutsak, eta ez sintagmak, konbinatzen dira egitura honetan. Hau onartuta ere, euskaraz [I+Adj] litzateke konbinazio ohikoa, eta ez *-ki*-rekin aurkitzen dugun [Adj+I] hurrenkera.

guztietan, oinarriko adjektiboa beti doa femeninoan (gazt. *perfectamente*, fr. *parfaitement*, it. *perfettamente*, port. *perfeitamente*, kat. *perfectament*), berez forma markatuagoa dena. Gaztelaniarako esan izan da (Kovacci 1999: 709) oinarriak zein atzizkiak, biek hartzen dutela intentsitate azentua: gure goiko adibidean, *perFEcta*-k azentua hartuko luke, eta baita *MENte*-k ere. Hori ohiz kanpokoa da, atzizkiek azentu unitate bakarria osatzen baitute oinarrian hartzen duten hitzarekin. Gainera, bi adjektibo eman daitezke juntaturaren bidez, atzizki bakarria izan arren: *simple y llanamente*, *lenta pero constantemente*. Jakina, hau ere ez da ohikoa eratorpen atzizkietan, oro har, ezin izaten baita atzizkien oinarriaren barruan operazio sintaktikorik gauzatu, oinarria syntaxirako opakua baita.

Dagoeneko azaldu dudana bezala (§4.1.1), Bakerren lanean (2003: 234), datu hauek *-ly/-mente* atzizkia izentzat hartuta azaltzen dira, izenak komunztadura eskatzen baitu. Antzeko gogoetak egiten ditu Fábregasek (2007) berak ere, baina proposamen teoriko desberdin baten bidez, Bakerren (2003) lanean aurkitu ditugun zenbait zailtasun saihesten ditu. Fábregasek ere defendatzen du *-mente* ezin litekeela eratorpen atzizkitzat hartu, bestela ezin azal daitezkeelako komunztadura eta juntaturari dagokionez aipatu ditudan ezaugarriak. Horren ordean, genero eta numero tasun interpretagarriak dituen *matrizetzat* hartzea proposatzen du.

Egile honek adierazten duenez, bere proposamena marko teoriko zehatz batean kokatzen da, hots, *Konstrukzionismoan* (ing. *Constructionalism*), baina, bere ustez, marko horretatik kanpo ere aplikatu daitezke, dagozkion aldaketak eginez. Lan honetan, Ramchandek (2008) eta beste zenbait egilearen ildotik, morfologia atal sintaktikoaren barruan gertatzen dela onartzen da eta, beraz, forma lexikoei sintaxiaren arau berberak aplikatzen zaizkiela. Katagoria gramatikalak, gainera, konfigurazio sintaktiko jakinekin identifikatzen dira eta, horregatik, ezin da jakin zein katagoriak jasoko duen zein tasun-multzo delako katagoria sintaktikoki gauzatu baino lehen. Dena den, egilearen ustez, analisi honetarako bi hipotesi hauek onartzen diren arren, analisi bera onargarria da teoria *lexikalistagoen*, alegia, morfologia syntaxitik bereiz irudikatzen dutenen artean.

Eztabaidagai dugun lanean kontuan hartzen diren hitzek ekintzari edo proposizioari buruzko predikazioa egiten dute eta, horregatik, ez dira komunztadura harremanetan sartzen adjektiboak bezala, ez dutelako tasun horiek dituzten izenen gainean predikatzen. Bestalde, *-mentek* ez dio inongo ekarpen semantikorik egiten egiturari, eta nahiz eta esan daitezkeen zenbait adberbio ezin konbina daitezkeela zenbait aditzekin (**buscar el lápiz accidentalmente*), ezintasun hori oinarrian duten

adjektiboaren ezaugarri semantikoen arabera da, ez *-mentek* gehituriko ezein ezaugarriren ondorio *-nekez* uztar baitaiteke *buscar* ekintza aditzak eskatzen duen borondatea *accidentalmente*, hots, inongo borondaterik gabe jardutearekin—. Gainera, esan dudan bezala, *-mentek* oinarrian hartzen duen adjektiboak bere kategoriari dagozkion ezaugarri formal guztiak gordetzen ditu: komunztadura egiten du eta mailakatu egin daiteke (*rapidísimamente* bezalakoetan, adibidez).

Komunztadura ulertzeko, Fábregasek (2007) Egitarau Minimalistako analisia onartzen du (Chomsky 1993, 1995). Teoria honetan, osagarri sintaktikoak tasun multzoak dira, tasunok bi motatakoak izan daitezkeelarik: interpretagarriak eta interpretagaitzak. Atal sintaktikoak ezin ditu tasun interpretagaitzak interpretatu eta hala, tasun interpretagarriekin komunztatu behar dira egitura gramatikala izan dadin. Beraz, komunztadura prozesuan, tasun interpretagaitzek tasun interpretagarrien balioak kopiatzen dituzte, atal sintaktikoan dauden artean. Adjektiboek dituzten tasun interpretagaitzak [α Genero] eta [α Numero]¹⁵ dira. Tasun hauek [Genero] eta [Numero] tasunak dituzten kategoria batekin komunztadura egin behar dute, alegia, izenekin.

Oro har, adjektiboek izenekin komunztadura egiten dutenean, tasun hauek bat etortzearekin batera, adjektiboak adierazten duen ezaugarria predikatzen du izenetik.

- (13) a. El policía perseguía a la fugitiva *exhausto*.
b. El policía perseguía a la fugitiva *exhausta*. (Fábregas 2007: 111, 14. adib.)

Hala, (13a) adibidean *exhausto* adjektiboak predikatzen duen ezaugarria *el policíari* dagokio, harekin komunztadura egiten baitu; aldiz, (13b) adibidean, *la fugitivari* dagokio. Hau azaltzeko, adjektiboari [Atribuzio] tasuna gaineratzea proposatzen du Fábregasek. Tasun hau indizekidetu egin behar da dagokion izenaren erreferentzia-indizearekin. Honekin batera, mailakatuak izateko gaitasuna ere tasun interpretagaitz baten bidez adieraztea proposatzen da, [α Gradu], Maila Sintagman komunztatzen dena. Hortaz, adjektiboak ezaugarritzen dituzten tasunak hauek dira: [α Gen(ero), α Num(ero), α Grad(u), Atr(ibuzio)].


Fábregasek (2007) onartzen du adverbioen oinarrian dauden adjektiboek tasun hauek guztiak gordetzen dituztela. Oro har, adjektiboek [α Gen] eta [α Num] tasunak izen batekin komunztatuaz asetzen dituzte, baina posible da tasun interpretagarriok dituen

¹⁵ Konbentzioari jarraiki, α letra erabiliko dut tasunaren aurretik adierazteko tasun hau interpretagaitza dela.

beste edozein elementurekin erkatzea, eta adberbioen kasuan, elementu hori hain zuzen *-mente* da. Behin tasun horiek erkatuta, [Atr] tasunak ez du zertan izen batekin indizekidetu behar, eta hala, izena ez den beste edozein kategoriarekin konbinatu daiteke.

Sintaxiari dagokionez, bestalde, adjektiboek bi ezaugarri kontrajarri dituzte: alde batetik ezinbestekoa dute osagarri bat edukitzea, predikazioaren subjektu izango dena. Bestetik, ordea, ezin dute zuzenean osagarririk hartu, ez bada adposizio baten bitartez. Datu hau azaltzeko, Bowersen (1993) lanean, tarteko islapen bat proposatzen da: Predikazio Sintagma (PredS). PredSk predikatua hartzen du osagarritzat eta bere Espezifikatzaile gunean predikatuak eskatzen duen argumentua. Adjektiboa, hain zuzen, predikatua izan daiteke [Atr] tasuna duelako. Hala, adjektiboak bere osagarria hartzeko, PredSren bitartekaritza behar du. Atribuzioa gauzatzeko, Bakerrek (2003) bezala, Fábregasek ere *identitate indizearen* kontzeptua erabiltzen du. Identitate indizea bat etorri behar da Adjektiboaren [Atr] tasunaren eta bere osagarriaren *erreferentzialtasun* tasunaren [Ref] artean, beheko diagraman erakusten den moduan (14). Pred buruan, hain zuzen, komunztadura gauzatzen duen morfema eratuko litzateke.

(14)



Juan -o alt-


Lexikalizazioa

(Fábregas 2007: 13, 22. adibidea)

Adberbioen kasuan, ordea, komunztadura eta argumentu identifikazioa bereiz gertatzen dira. *-Mente* bezala gauzatuko den matrizeak [Gen] eta [Num] tasunak erkatzea ahalbidetzen du, baina ez du identitate indizerik (15). Atribuzioa, beraz, beste zerbaiten gainean egin behar da. Honela, adjektiboa subjektutzat hartu ezingo litzukeen osagaien gainean predikatu daiteke, Bakerren (2003) proposamenean ez bezala, hemen onartzen baita aditzaren ebentua edo hizketa-moduak, esate baterako, identitate-indize

bat edukiko dutela, eta horrekin indizekidetzen dela [Atr] tasuna.

(15)



(Fábregas 2007: 15, 24. adibidea)

Hurrenkeraz den bezainbatean, Fábregasek (2007) proposatzen du buru mugimendu ziklikoari esker lortzen dela gaztelaniari dagokion morfemen hurrenkera. Buru mugimendu hau syntaxian gertatu behar da. Gainera, *-mente* espezifikatzaile gunean egoteak bere gune periferikoa azaltzen du. Hala ikusten dugu Maila Sintagma (GradS) gauzatzen denean:

(16) [[[[[[*herm-*]_√ *-os*]_{Adj} *-ísim*]_{Grad} *-a*]_{Pred} *-Ø*]_{Konpl} [*-mente*]_{Gen, Num}]

Laburbilduz, hipotesi honen arabera, pentsa genezake *-mente* elementua izen defektibo bat dela, tasun matrizeari begira. Gramatikalizazio baten gisara irudikatu nahi bagenu, pentsa genezake jatorrizko izenak (*mente*) erreferentzialtasun tasuna galdu duela, elementu erlazional hutsa izatera igaroz. Honek adjektiboaren genero eta numero tasunak komuntatzea ahalbidetzen du, baina adjektiboa beste elementu batetik predikatzerara behartzen du, horrela erkatu behar baitu bere [Atr] tasuna.

4.2.3. *-Ki adberbioen analisisa euskaraz*

Esan dudan bezala, berrikusitako analisisetan aztertzen diren *-ly* eta *-mente* atzizkiak euskaraz duen baliokidea *-ki* atzizkia da. Hau da egungo euskararen emankorra den atzizki bakarra, nahiz eta ez den hizkuntza erromantzeetako *-mente/-ment* edo ingelesezko *-ly* beste testuingurutan erabiltzen. Adibidez, ezinezkoak dira ondoko baliokidetza hauek:

- (17) a. *Claramente* falso / **argiki* faltsua
 b. *Happily*, Fred is not coming / **Pozki*, Fred ez dator
 c. Yo, *simplemente*, no lo entiendo / **Nik, sinpleki*, ez dut ulertzen

Gainera, ematen du hizkera batzuetan beste batzuetan baino emankortasun handiagoa duela atzizki honek. Zehazki, ekialdeko hizkerek testuinguru gehiagotan erabiltzen dute mendebaldekoek eta erdialdekoek baino (De Rijk 2008: 238). Dena dela, SEGen (2011-2019) arabera, modifikatzaileak *-ki* bidez sortzeko estrategia zabaltzen ari da gaur egungo prosan eta hala sortutako hitzak lekua hartzen ari zaie posposizioen bidez eratutakoei (*erraz/errazki, itsuan/itsuki*) edo adjektibo huts modura adierazitakoei (*apal/apalki esan zion*).

Hala ere, aipatu behar dut bestelako atzizkiak ere erabili izan direla testuinguru berean, gaur egun hitz batzuetan soilik ihartuta dauden arren. Hauek dira *-ro, -to* eta hauen konbinazioz osatutako *-kiro* eta *-roki*. Hauetako batzuek eremu dialektal murriztagoa hartu dutela ematen du, adibidez, *-to* mendebaldeko euskarako hitz batzuetan baino ez da lekukotzen: *ederto, txarto, zatarto* (SEG 2011–2019; De Rijk 2008: 233) eta *-roki* bidez osatutako hitzak *-ro* atzizkiarekin osatutako hitzek ekialdeko hizkeretan hartzen duten aldaera da (De Rijk 2008: 235). *-Kiro*, aldiz, *-ro* atzizkia kontsonantez bukatutako adjektiboek atxikitzerakoan agertzen da, *-ro*-ren alomorfo bat da beraz: *samurkiro, epelkiro* (De Rijk 2008: 234). *-Ka* eta *-(r)ik* ere eratorpen atzizkitzat hartu izan dira (EGLU I 1991: 315-316, SEG 2011-2019), baina atzizki hauek beste funtzio gramatikal batzuk ere badituzte —*ka* posposizio gisa ageri da *-raka/-ranzka* bezalakoetan, eta *-rik*, besteak beste, partizipio erresultatiboa adierazteko—. Askotan, *-(r)ik*-en kasuan bereziki, testuinguruak ez dira errez bereizten.¹⁶ Atzizki hauek modifikatzaileak sortzeko erabiltzen direnean duten jokabidea beste lan batean ikertu beharko litzateke sakonago, eta beraz, ez dut hemen jorratuko.

-Ka eta *-rik* kenduta, beraz, esan daiteke beste atzizki guztiek oinarrian adjektibo bat dutela, eta lehen begiratuan, guztiek diruditela eratorpen atzizkiak, *-mente/-ly* morfemek diruditen bezala. Beraz, galdetu beharrekoa da: Fábregasen (2007) analisisia onartuta, posible litzateke analisi hau euskarara ekartzea eta euskararen datuak azaltzea? Baiezkoan nago.

¹⁶ Hauen inguruko ikerketetarako, ikus bitez Berro (2015) *-ka*-rako eta De Rijk (1998 [1996], 2008) *-rik*-erako. Lan hauetan, hitz hauek adberbio kategoriakoak direla asumitzen dute egileek, baina berezitasunak dituztela ohartarazten dute.

Kontuan hartuta gaur egun emankorra den atzizki bakarra *-ki* dela, atzizki honi baino ez diot arreta eskainiko –pentsa daitekeen arren, analisi hau onargarria bada *-ki* atzizkiarentzat, analisi berak azal litzakeela beste atzizkien jokabidea emankorrak ziren iragan garaietan—. Hasteko ikusi behar da *-ki* atzizkia *-menteren* baliokidea ote den. Beharrezko alderdietan hala dela dirudi: *-ki*-k ere ez du inolako ekarpen semantikorik egiten, kategoria aldaketa gauzatzeko baino ez du balio, juntagailuarekin bi adjektibo elkar dakizkioke (*zehatz eta osoki*) eta beti ageri da adjektibo baten eskumatara. Atzizki honen bidez eratorritako hitzek AS zein Perpauis eremua modifika dezakete, eta moduzko esanahia hartzen dute lehen kasuan, edo hiztunari edo subjektuari bideratua bigarrenetan. Bi atzizkiek, beraz, esanguratsuak diren alderdietan emaitza berak ematen dituzte.

Gainera, *-ki* atzizkiak ere badu eratorpen atzizki arruntetatik urruntzen dituen ezaugarri bat: ez du bokaletan aldaketa fonologikorik eragiten beste eratorpen atzizki batzuen modura:


- (18) a. maite → maitale, maitagarri
 b. maite → maiteki

Era berean, atzizkiak berak ez du aldaketa fonologikorik jasaten *n*, *l* aurrean, salbuespen bakarrarekin: *ongi*.

- (19) a. gizen → gizenki /*gizengi
 b. umil → umilki/* umilgi

Honek, hizkuntza erromantzeetarako ikusi ditugun zantzuek bezala, pentsarazi diezaguke *-ki* ez dela eratorpen-atzizki arrunt bat. Ondorioz, egokia dirudi Fábregasen (2007) proposamena euskarara ekartzen saiatzea. Analisi hau onartuz gero, *-ki* ere erreferentzia gabeko elementua litzateke, zenbait tasun interpretagaitz soilik erkatzen dituena. Euskaraz Adjektiboak ez duenez genero tasunik, pentsatu behar da *-ki* atzizkiak [Numero] tasuna soilik erkatuko lukeela (20).

(20)



Honekin batera, agerikoa denez, AdjS ganean PredS islapen bat dagoela onartu beharko litzateke. Honelako proposamenak egin izan dira euskararako beste zenbait lanetan (Eguren 2012; Fernández eta Berro 2018).¹⁷ Aurrerantzean honek bestelako arazo teorikorik ekarriko ez balu, azterketa honek itxuraz eratorpenez sorturiko adberbioen arazoa konponduko luke.

Proposamen honek Bakerrenean (2003) euskararako aurkitu ditugun arazoak saihesten ditu. Izan ere, buruz buruko mugimenduaren bitartez, euskaraz ere *-ki* osagaia eskuin muturrean aurkitzea espero dugu, betiere KonplS islapena buru lehena dela onartuz gero (Ortiz de Urbinaren 1989, 2008 ildotik, *pace* Laka 1990, beste batzuen artean). Horrekin batera, proposamen honek azaltzen du zergatik ez duten hurrenkera bera ezartzen adjektiboek izenarekin eta *-ki*-rekin. Izan ere, lehena atribuzio harremana bada, bigarren hau guztiz bestelako harremana da, *-ki* PredS islapenaren espezifikatzaile gunean ageri baita.

(21) [[[[[harri]_v-garri]_{Adj}-Ø]_{Pred}]_{Konpl}[-ki]]

Arazo semantikoari ere hobeto erantzuten dio proposamen honek Bakerrenak (2003) baino. Izan ere, Bakerrenean, adjektiboak zuzenean *-ly* modifikatzen duela onartzerakoan, *-ly*-k duen balioa zehaztea ezinbestekoa da, honek egiten baitu adjektiboaren eta aditzaren arteko bitartekari lana. Fábregasen (2007) proposamenean, aldiz, *-mentek* ez du berezko baliorik. Honek ahalbidetzen du interpretazioa desberdina izatea kasuan kasuan. Eta kasu bakoitzean interpretazioa zehaztuko duena zera da, hain zuzen, adjektiboaren [Atr] tasuna zerekin indizekidetzen den. Gainerakoan, funtsezko beste desberdintasun bat da Fábregasen analisisian identitate-indizea ez dagokiola izenen

¹⁷ Eta hain zuzen, lan hauei jarraiki onetsi dut PredS islapen buru-azkena dela. Dena dela, edozein dela ere buru parametroa, analisia bera izango litzateke.

erreferentzialtasunari soilik; ebentuek eta hizketa-moduek ere badute identitate-indizerik, eta horregatik, euren gainean ere gauzatu daiteke atribuzioa adjektiboen bidez.

Nire proposamenari dagokionez, *-ly/-mente/-ki* bidez sortutako hitzak ez direla eratorriak frogatzea funtsezko aurrerapausoa da adberbio kategoria beregainik ez dela defendatzeko, esana baitut adberbioak eratzeko morfema espezifikokoak egotea argudiotzat erabili izan dela hauen estatus independentea defendatzeko. Hala, mota honetako hitzak adjektibotzat har badaitezke, zilegi da pentsatzea beste kasu batzuetan ere adberbioak ez direla berezko kategoria bat. Hipotesi hau garatzen jarraitzeko, honako kasuak azaldu behar ditut: lehenik eta behin, adjektibo hutsak diruditen adberbioak (§4.3); bigarrenik, PS ihartuak diruditenak (§4.4) eta azkenik, hitz bakun itxurakoak (§4.5).

4.3. Adjektibo huts itxurako adberbioak

Gaztelaniazko adjektibo huts itxurako modifikatzaileak aztertzen dituen Fábregas & Alexeyenkoren lanean (2016), adjektiboz osatutako antzeko bi egitura antzeko bereizten dira: *adjektibo aldagaitzak* (ing. *invariable adjectives*) eta bigarren mailako predikatuak. Biek jokabide desberdina dutela erakutsi ondoren, adjektibo aldagaitzentzat (aurrerantzean, AdjA) analisi bat proposatzen da. AdjAk dira, hain zuzen, adberbiotzat hartu diren adjektiboak, izan ere, askotan *-mente/-ki* bidez osatutako hitzekin alternantzian egoten dira. Fábregas eta Alexeyenkok azaltzen dutenez, alternantzia honek librea irudi dezake:

- (22) a. Juan respira *hondo/hondamente*.
b. Juana cortó (*fino*) la cebolla (*finamente*).

(Fábregas & Alexeyenko 2016: 1–2 adib.)

Baina, gehienetan, banaketa osagarrian egoten dira. Izan ere, gaztelaniaz, AdjAk ezin dira aditzaren aurrean agertu:

- (23) a. Fue expuesto *claramente/claro*.
b. Fue *claramente*/**claro* expuesto.

(Fábregas & Alexeyenko 2016: 10a, 11a adib.)

Horrez gain, hiztun gehienentzat, AdjAek aditzaren eskuinetara lehen egongunean egon


behar dira eta osagarriak ezin dira euren eta aditzaren artean agertu:

(24) *Juan cortó la cebolla *fino*. (Fábregas & Alexeyenko 2016: 16b adib.)

Semantikoki ere, egileok ohartarazten dute AdjAek, oro har, ezaugarri fisikoak adierazi ohi dituztela, eta beraz aditzaren barne-semantikaren arabera interpretazioa jasotzen dutela. *-Mente* bezalakoek, aldiz, gertakariaren kanpoko ezaugarriak adierazten dituzte. Hala, adibidez, *hondo* adjektiboak sakonera fisikoa bakarrik adieraz dezake, baina *hondamente* hitzak irakurketa metaforikoa izan ohi du, gertakaria gauzatzeko moduari dagokiona. Horregatik, AdjA berberak irakurketa desberdinak izan ditzake modifikatzen duen aditzaren semantikaren arabera: *lanzar alto* vs. *hablar alto*. Gainera, hori dela eta, euren konbinazio aukerak mugatuak izaten dira, batzuetan aditzak lexikoki hautatzen dituela emateraino: *jugar limpio* /**pelear limpio* /**jugar justo* (Fábregas & Alexeyenko 2016: 36a, 36c eta 37 adibideak).

AdjAek komunztadurarik egiten ez dutenez, egileen ustez, ezin ditugu AdjStzat hartu, eta, hau da, hain zuzen, desberdintasun nagusia bigarren mailako predikatuekin. Horregatik, AdjAk DStzat aztertzea proposatzen dute (25):

(25)



(25) adibidean ikusten dugunez, ISari dagokion gunean I huts bat dagoela proposatzen da. Fábregas eta Alexeyenkoren arabera, DSk I hutsa aditzak onartzen du, eta haren interpretazioa aditzaren barne-semantikak ezartzen du. Hemen, aditza *cortar* ‘moztu’ dela pentsatuz gero, I hutsa ‘moztu daitekeen zati bat’ bezala interpretatzea dakar.

Honengatik, hain zuzen, AdjAen interpretazioa aditz egokiarekin batera agertzearen arabera da guztiz. Egile hauen arabera, *-mente* hitzaren eta AdjAren artean gerta daitekeen banaketa ez-osagarria ere aditzaren semantikaren arabera da: aditzak *bidea* (ing. *path*) ahalbidetzen duen interpretazio bat eta *modua* duen beste bat baditu, orduan ezaugarri fisikoak adierazteko AdjA baimenduko du, eta modua

adierazteko, berriz, *-mente* erakoak, interpretazio psikologiko edo ez-fisikoetarako.


Bestalde, komunztadura ezari dagokionez, egileek diotenez “ilusioa besterik ez” da, izan ere, AdjA egiturako adjektiboek I hutsarekin komunztadura egiten dute. Gaztelaniaz, besterik ezean ezartzen den komunztadura maskulino singularra da, eta horregatik hala ageri dira egitura hauetan adjektiboak. Komunztadura neutroa duten hizkuntzek, ordea, neutroa erabiltzen dute kasu hauetarako, hala nola norvegierak:

- (26) kutte tyn-t
moztu fin-N
'fin moztu' (Fábregas & Alexeyenko 2016: 68. adib)

Proposamen hau euskarara ekarrita, zenbait zailtasun agertzen dira, Agirrek (2017) erakutsi zuen bezala. Izan ere, euskaraz, ez du ematen adjektibo huts itxurako modifikatzaileek horrenbesteko murriztapenik dutenik kokapenari dagokionez. Izatez, gehienetan, *-ki* bidez sortutako hitzekin alternantzian ager daitezke. De Rijkek (2008) ohartarazi zuen, gainera, hegoaldeko hizkeretan ohikoagoa dela Adj hutsak ematea iparraldean *-ki* bidez osatutako hitzak ematen diren leku berean.

Beraz, Agirrek (2017) ondorioztatu zuen, *-ki* erako hitzak eta euskarazko adjektibo hutsak (AdjA) kategoria berekoak izan behar dutela. Agirrerren lanean, honek AdjA PSak zirela proposatzea ekarri zuen, hala aztertu baitzituen *-ki* erako hitzak. Baina nik hemen jarraitzen dudan proposamenean, *-ki* erako hitzak PredSn sortzen dira, eta hori bera pentsa genezake *-ki* gabeko adjektiboek ere. Kasu honetan PredSren espezifikatzailean zero morfema bat dagoela suposatu beharko litzateke, [Num] tasuna asetzen duena (27). Hau da De Rijkek (2008: 237) *zero adverbializer* deiturikoa, proposatzen dudan analisis eratorpen atzizki bat gabe, adjektiboarekin batera elkarlanean sartzten den elementua bada ere.

(27)



Dena dela, badaude zenbait kasu non *-ki* atzizkia erabili edo ez erabiltzeak kontrastea sor dezakeen. De Rijkek (1998 [1996]) adierazten duenez, batzuetan *-ki* atzizkiak ezinbestean agertu behar du, eta kenduz gero, adjektiboa ez da interpretatzen aditzaren modifikatzaile gisa, baizik berak *adverbio estatibo* (ing. *stative adverb*) deitu diona bezala. Berak azaltzen duenez, *stative adverb* deiturak bigarren mailako predikatuei egiten die erreferentzia:

- (28) a. Beñat alai sartu zen gelara (= Beñat alai zegoen gelara sartu zenean)
b. Beñat alaiki sartu zen gelara (=era alai batean sartu zen)

Beraz, batzuetan, interpretazioaren aldetik banaketa osagarrian leudeke bi egitura hauek. Nire ustez, azken kasu hauetan, PredSren espezifikatzailea hutsik legoke. Honek, adjektiboaren tasun guztiak utziko lituzke komunztatu gabe, eta hauek erkatzeko, adjektiboak perpauseko beste osagai batekin komunztadura egiten du: aditzaren subjektua edo objektuarekin, alegia.

Honek homofonia fenomeno bat sortzen du gunehori zero-morfema batez beteta duten hitzekin. Izan ere, komunztadura efektuak desberdinak dira bietan, baina gauzapean fonologikoa bera. Desberdintasuna da zero-morfemadunak alternantzia daukela *-ki*-dun adjektiboekin, eta ez hala, PredSren espezifikatzailea hutsik dutenak. Gaztelaniaz, eta are zenbaitetan euskaraz (*mozkortuak etorri ziren* bezalakoetan), azken hauek ageriko komunztadura egiten dute perpauseko argumenturen baten genero eta numeroarekin, bigarren predikatuak direnez gero.

Laburbiltzeko, nire ustez, bi modifikatzaile bereiz daitezke “adjektibo huts itxurako”en artean. Biak islatzen dira PredS batean, baina kasu batean, tasun batzuk morfema isil batekin erkatzen dituzte, eta atribuzio tasunak perpausean aurkitzen duten beste elementuren batekin (ebentua, hizketa-modua). Honelakoak, alternantzia librean daude *-ki*-z osatutako hitzekin, egitura bera baitute. Morfema fonologikoki gauzatzearen hautua, askotan, aldakortasun dialektalari zor zaio. Bestetik, morfema gehigarririk gabeko adjektiboak genituzke. Hauek, aditza modifikatzen dutela eman balezake ere, perpauseko argumentu bat modifikatzen dute eta honekin egiten dute komunztadura. Hauek banaketa osagarrian daude *-ki* bidez osatutako hitzekin, izan ere, *-ki* hartzean baino ez dira AS edo perpaus eremuaren beraren modifikatzaile bilakatzen.

4.4. PS ihartuen itxurakoak

Aurreko ataletan (§4.2, §4.3), adberbioek adjektibo itxura dutenean zein *-ki* erako atzizkia hartzen dutenean adjektibo osoak direla argudiatu daitekeela defendatu dut. Behin adberbioari berezkoa zaion eratorpen morfemarik ez dagoela onartuta, ez dago hain argi zergatik gorde beharko litzatekeen adberbio kategoria. Izan ere, dagoeneko azaldu dudan bezala (§3.2), ez dago inongo eztabaidarik hainbat adberbioren jatorriari dagokionez: jatorriz PS argiak dira, eta adberbiotzat hartzeko arrazoia da esanahi lexikalizatu edo estereotipatua dutela, eta ez euren itxura morfologikoa edo jokabide sintaktikoa. Adberbiotzat hartu diren hauek PSak direla mantentzea ez da zaila, izan ere, PSen banaketa bera dute eta askotan batek bestea ordezkatzeko dezake:

- (29) a. *Aurten* ez da saririk eman.
b. *Urte honetan* ez da saririk eman.
- (30) a. *Gainera*, zure laguna ez da isiltzen.
b. *Horrekin batera*, zure laguna ez da isiltzen.

Adberbiotzat hartu diren hauek, beraz, ez dira bestelako egitura ihartuetatik desberdintzen. Euren berezitasun bakarra da hitz bakarrean biltzen dutela delako esanahi lexikalizatua. Ez dut, beraz, aparteko arazo teorikorik ikusten proposatzeko *aurten* bezalakoak PSak direla, eta horixe aldarrikatuko dut hemen.

Elordietak (2003) gogorarazten du zenbait hizkuntzetan adberbio zeregina duten PSek adberbio hutsek baino banaketa murriztagoa dutela esan izan dela. Nolanahi ere den, egileak berak dio: “*baina ez dut uste orohar aditzondoek adberbio funtzioa duten PSek baino hurrenkera malguagoa azaltzen dutenik*” (Elordietak 2003: 210). Euskararen kasuan behintzat, Elordietaren ustearekin bat nator neu ere, PSek ere, gehienetan, hitz bakarra osatzen baitute, eta hauek ez dute hurrenkera murriztagorik izaten. Aurrerantzean alderdi hau ziurtatu beharko litzatekeen arren, oraingoz ez dut arrazoirik ikusten bereizketarik egiteko PS eta adberbioen artean.

4.5. Hitz bakunak direnak

Aurretik aztertu ditudan hitzez gain, badaude adberbiotzat hartu diren beste zenbait hitz, itxuraz, beste kategoria batzuekin inongo antzekotasunik erakusten ez dutenak. Hauek erronka bat dakarte adberbio kategoriarik ez dagoela aldarrikatuz gero.

Nolanahi ere den, nire ustez, hauek ere beste modu argigarriago batez azal daitezke.

Denborazko hainbat adberbio ditugu hitz bakunak diruditenak: *gaur*, *bihar*, *aspaldi*, *iaz*. Ez dago zalantzarik egungo hiztunarentzat hitz hauek ez dutela barne egiturarik, etimologikoki bestela izan daitekeen: *gaur*, OEHren arabera, *gau+haur* hitzen elkarketatik sortu da; *aspaldi*, bestalde, *asko+aldi*¹⁸ bezala eratorri da Euskal Hiztegi Historiko Etimologikoan (EHHE) eta lan berean, *atzo*, *atze-ri* *-(d)o* atzizkia gehituz sortu dela proposatu da. Beste hizkuntza batzuetan ere hala dela ikus daiteke: *hoy* < lat. *hoc die*, *antano* < *ante año*, *today* < *to day*, *yesterday* < *yester day*. Kasu hauetako askotan, jatorrian PS bat egon dela antzematen da: *today*, *yesterday*, *antano*, edo DS hutsak: *hoy*, *gaur*, *egun*, *aspaldi*. Hau ondo uztartzen da PS itxura argiagoko adberbioez esandakorekin: PSek esanahi ihartua edo lexikalizatuagoa hartu ahala, hitz bakuntzat jotzen dira. Prozesuan zehar materia fonikoa ere galdu ohi da, baita hitzaren forma eraldatu ere, hiztunak jatorria susmatu ezin duen arte.

Hala ere, hitz hauen jatorria argitzeak ez du kategoriari buruzko arazoa argitzen, zilegi baita proposatzea PSak Adberbio kategoriara igaro direla diakronikoki. Bestelako analisi baten bila, Huddleston & Pullum (2002: 564–565) lanera jo dut. Izan ere, aurretik azaldu dudana bezala (§3.1), egile hauek, adberbio kategoria bera onartzen duten arren, kategoria honetatik kanpo uzten dituzte *today* erako hitzak.

Egile hauen iritziz, mota honetako hitzek ez dute esanahi beregainik, ez bada adiera deiktikoa, eta alde horretatik, izenordaintzat hartzea proposatzen dute. Honekin batera, argudiatzen dute *today* erako hitzek badutela erabilera bat non izen modura interpretatzen diren gramatika tradizioaletan:

- (31) a. *Yesterday* was the first day for weeks that it hasn't rained.
b. They arrived *yesterday*.

Egile hauek ez dute arrazoirik ikusten desberdintzeko (31a) eta (31b) perpausetan *yesterday*-k duen erabilera. Izan ere, ingelesez beste hainbat DS ere perpausaren adjuntu gisa ager daitezkeela onartzen da, adibidez:

- (32) a. They arrived *last week*.

¹⁸ Etimologia hauek *Euskal Hiztegi Historiko Etimologikoan* (2019) proposatzen dira. Argitu behar da hauek guztiak egileen berreraiketak direla, ez baita aurkitu zehazki etimologia hauek frogatzen dituen lekukotasun zuzenik. Hauek hona ekartzearen helburua izan da hitz hauen jatorrian egitura konplexuagoak, esaterako, DSak edo PSak egon direla iradokitzea.

- b. They tried *many times*.
- c. They did it *this way*.

Ikuspegi honen aurka, RAEren *Gramática Descriptiva* (Bosque & Demonte, 1999), adberbio deiktikoak daudela onartzen da eta horien barruan sailkatzen dira *aquí, ahora, mañana, así, tanto* bezalakoak (Kovacci 1999: 707). Baina Huddleston eta Pullumek (ibid.) ingeleserako erabilitako argudioa eraman liteke gaztelaniara, hizkuntza honetan ere perpausaren adjuntu gisa ager baitaitezke DSak:

- (33)
- a. Llegaron *la semana pasada*.
 - b. Lo intentaron *varias veces*.
 - c. Se quedaron *un buen rato*.

Aparteko kategoriaren beharrik ez dago, beraz, *yesterday* erako hitzetarako, baldin eta berdin onartu behar badugu DS hutsek perpausen adjuntu gisa jokatu dezaketela. Gauzak horrela, ez du ematen inolaz ere komeni denik (34a) eta (34b) desberdin aztertzea:

- (34)
- a. Llegaron *la semana pasada*.
 - b. Llegaron *ayer*.

Euskaraz, ordea, ez du ematen (32) eta (33) adibideak bezalako perpausik eraiki daitekeenik. Hala, bi azterbide posible daude. Batetik, pentsa daiteke *atzo* motako hitzen kasua dela euskaraz IS/DS bat perpausa modifikatzen aurkitu daitekeen bakarra. Bestetik, proposatu daiteke mota honetako hitzak ez direla IS/DSak. Hala ere, ez du ematen beste hizkuntza batzuetan beharrezkoa gertatu ez den kategoria bat euskararako proposatzea aukera hobereana litzatekeenik. Euskaraz (32) eta (33) erako perpausetan PSak aurkitzen dira beti. Beraz, aukera bat litzateke proposatzea *atzo* bezalako hitzak PSak direla, P isil bat dutenak. Dena dela, SEGen (2011-2019) azaltzen den bezala, beste bide bat izan daiteke *atzo* bezalako hitzak P amalgamatuta duten hitz bezala irudikatzea. Hori praktikara eramateko, pentsa daiteke, *atzo* bezalako hitz batek Pred-en tasunak ere hartzen dituela, eta beraz, hitza berez dela PS bat, zero-morfemaren beharrik gabe. Kasu honetan, beraz, ezaugarri lexiko eta funtzionalak, guztiak gauzatuko lirateke hitzaren beraren barruan, konposizionalki osatu gabe. Hain zuzen hori da *Gramática*

Descriptivan adierazten dena (Pavón Lucero 1999: 568) esaterakoan adberbioek euren barruan biltzen dutela Pk edo juntagailuek beste sintagma batekin elkaturik adierazten dutena (§3.1): lotura-harremana gehi lotutakoaren esanahi lexikoa. Erdaretako *today* edo *antaño* bezalako adibideen bilakabide historikoak hipotesi hau berretsi dezake.

Proposamen honen abantaila da, zalantzarik gabe, adberbio hauek PSeKin duten banaketa eta funtzio guztiz paraleloa justifikatuko lukeela. Izan ere, zorizkoa dirudi hitz bakarra izatea *gaur*, baina esanahi eta banaketa bera izatea *egun honetan* sintagmak. Bestalde, nabarmena da, goian proposatu dudana analisia kategoriatik definitzeko onartzen den irizpidearen arabera dela erabat, izan ere, hemen onartzen ari bainaiz banaketa kategoriatik definitzeko irizpide erabakigarria dela bere horretan.

5. Ondorioak: ez dago adberbiorik

Lan honetan, *adberbio* deitu izan den kategoriarik buruz gogoeta egin dut, orain arte eman zaion definizioa xeheki aztertuz, eta kategoriatik honen beharra ukatzen duten zenbait proposamen sintaktiko berrikusi eta euskarara nola ekar litezkeen aztertu dut.

Orain arteko deskribapenei dagokionez, erakutsi dut gaztelaniaren, ingelesaren zein euskararen hainbat gramatikatan, kategoriatik hau definitzerakoan egiten diren deskribapenak lausoegiak, ez-osoak edo kontraesankorrak izaten direla. Zenbait gramatikatan (Huddleston & Pullum 2002; NGLE 2009; SEG 2011–2019), zailtasun hauei esplizituki egiten zaie erreferentzia, baina hala ere, kategoriatik bere horretan mantentzen da, tradizioari jarraiki edo. Lan hauetan ohartarazi denez, adberbio kategoriatik deskribatzeko arazoak multzo honen heterogeneotasunari zor zaizkio, orain arte, adberbio deiturapean itxura morfologiko eta jokabide sintaktiko desberdineko elementuak sartu baitira, hala nola, partikula ebidentzialak (*omen*, *ei*), kuantifikatzaileak (*asko*, *anitz*), adjektibo huts itxurakoak eta *-ki* atzizkiaren bidez osatutakoak.

Zailtasun honi aurre egiteko, nik kategoriatik honi uko egitea proposatu dut, eta orain arte deitura honen azpian sailkatzen ziren elementuak aurretiaz hobeto definituta dauden kategorietan sailka daitezkeela argudiatu dut. *-Ki* bidez sortutako hitzen kasuan, Bakerren (2003) eta bereziki, Fábregasen (2007) proposamenetan oinarritu naiz, eta *-ki* morfema komuntadura tasunak erkatzeko gai den baina erreferentziarik ez duen elementua dela argudiatu dut, eta horregatik, harekin elkartzen den adjektiboak perpauseko beste elementuren batekin erkatzen duela bere Atribuzio tasuna. Proposamen hau morfologiaren ikuspegi Konstruktibistan oinarritu da, eta tasun erkaketari dagokionez, Teoria Minimalista onartu dut.

Adjektibo huts itxurako hitzei ere begiratu diet, hauek ere adberbiotzat hartu izan direlako. Hauen azterketarako Fábregas & Alexeyenkoren (2016) lana eta honekin batera, Agirrek (2017) euskararako egindako moldaketa berrikusi ditut, eta *-ki*-dun hitzetarako proposatu dudanaren ildotik, adjektibo huts itxurakoentzat beste analisi bat eman dut. Nire analisisan, euskaraz, *-ki*-ren ordeaz, zero-morfema bat agertu daiteke, *-ki*-ren tasun berberak dituen, eta honekin erkatuko ditu adjektiboak bere komunztadura tasunak (euskaraz, Numero tasuna). Bi morfemen arteko banaketa libre da askotan eta hizkeratik hizkerara aldatu ohi da *-ki* onartu daitekeen edo ez. Bestalde, ohartarazi dut mota honetako adjektiboak ez direla nahasi behar bigarren predikatutzat egiten duten adjektiboekin, hauek banaketa osagarrian baitaude *-ki* bidez osatutako adjektiboekin.

Adberbiotzat hartu diren beste zenbait elementu ere beste kategoria batzuetan sailkatu daitezkeela erakutsi dut. Hainbat adberbio morfologikoki PS gisa aztertzeo arazorik ez dagoela erakutsi dut, izan ere, P argi bat sumatu baitaiteke euren osieran eta alternantzia librean egoten dira PSekin (*gainera, ustez*). Hauen berezitasuna semantikoa da, EGLUK (1991) adierazi bezala, esanahi lexikalizatu edo estereotipatu bat hartu baitute. Beste zenbait hitzetan ez da hain argi antzematen PS osaera, baina banaketari begira, eta kontuan hartuta askotan diakronikoki DS edo PS batetik etorritako hitzak direla, hauek ere P isileko PS modura aztertu daitezkeela proposatu dut (*gaur, aspaldi*).

Hauek guztiak kategoria bereko osagaitzat hartu izan dira, hein handi batean banaketa antzekoa dutelako, hain zuzen, modifikatzaileei dagokien banaketa. Modifikazioa I ez den elementu baten gainean egiten denean, funtzio zirkunstantziala dutela ere esan ohi da, eta honek eraman izan ditu gramatikariak pentsatzera, kategoria aldetik ere, guztiak kategoria bakarrekoak direla, *adberbio* kategoriakoak, hain zuzen. Hemen proposatu nahi izan dudana da zeregin sintaktiko bera hainbat kategoriatako osagaiek bete dezaketela, hala nola, Adjektiboek (edo PredSek), PSek eta kuantifikatzaileek.

Adberbio kategoria definitzeko egon den zailtasun nabarmenena izan da ezaugarri bereizgarriarik ezin aurkitzea. Nire iritziz, hori ez da harritzekoa, izan ere, beste testuinguru batzuetan aurkitzen ditugun kategoria bereko hitzak dira, dauden testuinguru sintaktikoaren arabera, askotariko baldintza sintaktikoak betetzen dituztenak. Kontrakoa argudiatzeak, alegia, ASren edota perpausaren eremuko modifikatzaile guztiak kategoria bakarrekoak direla aldarrikatzeak, berarekin dakar errepikatzen diren sarrera lexiko asko asumitzea, izan ere, ohikoena da AS edo perpausaren eremuko modifikatzaile diren hitzak beste funtzio batzuetarako ere

erabiltzea. Gerora begira, ikusi beharko litzateke hemen aztertu ditudan askotariko kategoria hauek zer kokaleku hartzen duten perpausaren egituran, eta zertan bereizten diren PS arruntak orain arte adberbiotzat hartuak izan diren PSetatik.

Aipamenak

- Agirre, Xabier (2017). *Euskal adjektibozko adberbioak aztergai*. Gradu Amaierako Lana, UPV/EHU.
- Alexiadou, Artemis (1997). *Adverb placement. A case study in antisymmetric syntax*. Amsterdam/Philadelphia: John Benjamins.
- Baker, Mark (2003). *Lexical categories: verbs, nouns and adjectives*. Cambridge: Cambridge University Press.
- Berro, Ane (2015). *Breaking verbs. From event structure to syntactic categories in Basque*. Doktore tesia, UPV/EHU & Université Bordeaux Montaigne (UBM).
- Bowers, John (1993): "The syntax of predication", *Linguistic Inquiry* 24: 4. 591-656.
- Bosque, Ignacio & Violeta Demonte (arg.) (1999). *Gramática descriptiva de la lengua española*. Madril: Espasa Calpe.
- Chomsky, Noam (1993). A minimalist program for linguistic theory. In Keneth Hale & Keyser (arg.), *The view from Building 20*. Cambridge, Massachusetts: MIT Press.
- Chomsky, Noam (1995). *The Minimalist Program*. Cambridge, Massachusetts: MIT Press.
- Delfitto, Denis (2005). Adverb classes and adverb placement. In Martin Everaert & Henk van Riemsdijk (arg.), *The Blackwell companion to syntax*. Oxford: Blackwell Publishing. Blackwell Reference Online. 09 November 2007 <<http://www.blackwellreference.com/subscriber/tocnode?>
- De Rijk, Rudolf P.G. (1998 [1996]). Basque manner adverbs and their genesis. In *De lingua vasconum: Selected Writings, 1998* [ASJUren Gehigarriak 43]. 391–419.
- De Rijk, Rudolf P.G. (2008). *A standard grammar of Basque*. Cambridge, Mass.: MIT Press.
- Dryer, Matthew S. & Martin Haspelmath (arg.), (2013). *The World Atlas of Language Structures Online*. Leipzig: Max Planck Institute for Evolutionary Anthropology. [Sarean eskuragarri: <http://wals.info>, azken kontsulta: 2021-04-15]
- Eguren, Luis (2012). Predication markers in Basque. *Noun Phrases and nominalization in Basque: syntax and semantics*. In Urtzi Etxeberria, Ricardo Etxepare & Myriam Uribe-Etxebarria. Amsterdam/Philadelphia: John Benjamins. 243–265.

- Elordieta, Arantzazu (2003). Moduzko adberbioak eta adberbioen arteko hurrenkeraz. In Jesus Mari Makazaga & Beñat Oyharçabal (arg.), *Euskal gramatikari eta literaturari buruzko ikerketak XXI. mendearen atarian. Gramatika-Gaiak* [Iker 14(1)]. Baiona: Euskaltzaindia–IKER. 207–231.
- Elordieta, Arantzazu (2011–2019) Adberbioa. In Pello Salaburu, Ibon Sarasola & Patxi Goenaga (arg.), *Sareko Euskal Gramatika (SEG)*. [Sarean eskuragarri: ehu.eus/seg/morf/5/10, azken kontsulta: 2021-04-15]
- Elhuyar (2013). *Elhuyar hiztegia: euskara gaztelania = diccionario castellano vasco* (4. argit). Usurbil: Elhuyar. [Sarean eskuragarri: <https://hiztegiak.elhuyar.eus/>, azken kontsulta: 2021-05-10]
- Emonds, Joseph E. (1985). *A unified theory of syntactic categories* (Studies in generative grammar series, 19). Dordrecht: Foris.
- Etxeberria, Jürgen (2020). *Adposizioak: izan ala ez izan, hortxe gakoa*. Gradu Amaierako Lana, UPV/EHU.
- Euskaltzaindia (1991). *Euskal Gramatika. Lehen Urratsak-I (EGLU-I)*. Bilbo: Euskaltzaindia. 309–346.
- Euskaltzaindia (2010). *Hiztegi batua* (3. arg.). Donostia: Elkar.
- Fábregas, Antonio (2007). Adverbios en *-mente* y la estructura del adjetivo en español. *ELUA, Estudios de Lingüística Universidad de Alicante* 21. 103–124.
- Fábregas, Antonio & Sasha Alexeyenko (2016). *Between adverbs and adjectives: Invariable adjectives in Spanish and English*. eskuizkribua, Univ. of Tromsø & Univ. of Osnabrück.
- Fernández, Beatriz & Ane Berro (2018). *Orhiko xoria Orhin lakhet*: izen/adjektibo psikologiako, gai lokatiboak eta predikazioa. In Joseba A. Lakarra & Blanca Urgell (arg.), *Studia Diachronica et Philologica in honorem Joakin Gorrotxategi: Vasconica et Aquitanica. ASJU* 52 (1/2). Gasteiz: UPV/EHU. 253–270.
- Hualde, Jose Ignacio (2003). Adverbs. In Jose Ignacio Hualde & Jon Ortiz de Urbina (arg.), *A grammar of Basque*. Berlin: Mouton de Gruyter, 190–195.
- Hualde, Jose Ignacio & Jon Ortiz de Urbina (arg.), (2003). *A grammar of Basque*. Berlin: Mouton de Gruyter.
- Huddleston, Rodney & Geoffrey K. Pullum (2002). Adjectives and adverbs. In Rodney Huddleston & Geoffrey K. Pullum (arg.), *The Cambridge grammar of the English language*. Cambridge: Cambridge University Press. 525–597.

- Jackendoff, Ray S. (1972). *Semantic interpretation in generative grammar*. Cambridge: MIT Press. 47–107.
- Kovacci, Ofelia (1999). El adverbio. In Ignacio Bosque & Violeta Demonte (arg.), *Gramática descriptiva de la lengua española*. Madrid: Espasa Calpe. 705–786.
- Laka, Itziar (1990). *Negation in Syntax: On the nature of functional categories and projections*. Doktore tesia, MIT.
- Lakarra, Joseba, Julen Manterola & Iñaki Segurola (2019). *Euskal Hiztegi Historiko-Etimologikoa (EHHE-200)*. Bilbo: Euskaltzaindia.
- Mitxelena, Luis & Ibon Sarasola (1987–2005). *Orotariko Euskal Hiztegia*. (7.edizioa: 2020).
- Ortiz de Urbina, Jon (1989). *Some parameters in the grammar of Basque*. Dordrecht: Foris.
- Ortiz de Urbina, Jon (2008). Indar sintagmak, Foku sintagmak eta ezkeraldeko buruak euskaran. In Arteatx, Iñigo, Xabier Artiagoitia & Arantzazu Elordieta (arg.), *Antisimetriaren hipotesia vs buru parametroa: euskararen oinarrizko hitz hurrenkera ezbaian*. Bilbo: UPV/EHUko Argitalpen Zerbitzua.
- Pavón Lucero, María Victoria (1999). Clases de partículas: preposición, conjunción y adverbio. In Ignacio Bosque & Violeta Demonte (arg.), *Gramática descriptiva de la lengua española*. Madrid: Espasa Calpe. 565–655.
- Partee, Barbara H. (1991). Topic, focus and Quantification. In S. Moore and A. Z. Wyner (arg.), *Proceedings of Semantics and Linguistic Theory I*. Ithaca: Cornell. 159–188.
- Ramchand, Gillian C. (2008). *Verb meaning and the lexicon: a first phase syntax*. New York: Cambridge University Press.
- Real Academia Española & Asociación de Academias de la Lengua Española (2009). El adverbio y el grupo adverbial. In Real Academia Española & Asociación de Academias de la Lengua Española (arg.), *Nueva gramática de la lengua española* (1. arg.). Madrid: Espasa-Calpe. 2285–2295
- Salaburu, Pello, Ibon Sarasola & Patxi Goenaga (arg.), *Sareko Euskal Gramatika* (SEG). [Sarean eskuragarri: ehu.eus/seg/morf/5/10, azken kontsulta: 2021-04-15]
- Zabala, Igone & Juan Carlos Odriozola (1994). ‘Adjektiboen’ eta ‘adberbioen’ arteko muga zehatzik eza. *ASJU XXVIII* (2). 525–541.